



PIRINIOETAKO ESTRATEGIA

Pirinioetako Lan Elkartea

2018 - 2024

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA.....	3
1.1. Dokumentu estrategikoaren irismena eta helburuak	4
1.2. PLEaren hurbilketa historikoa eta plangintza-tresnak	4
1.3. PLEaren xedea eta ikuspegia	7
1.3.1.- Zer-nolako PLEa nahi dugu?	8
1.3.2.- POCTEFAREN kudeaketa operatiboa (2007-2020)	8
1.3.3.- Lurralde-analisirako elementuak	9
1.3.4.- Pirinioetako mugaz haraindiko lankidetzaren erronkak eta aukerak	10
1.3.5.- 2018-2024 aldirako Pirinioetako Estrategiaren edukia eta helburuak	13
1.3.6.- Finantzaket	15
2. IKUSPEGI METODOLOGIKOA	19
3. DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA	25
3.1. Aztertutako dokumentuak	26
3.2. Diagnostikotik eta Batzorde Zientifikoarekiko elkarrizketetatik eratorritako erronka nagusiak	26
4. 2018-2024 ALDIRAKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA	29
5. MONITORIZAZIOA ETA EBALUAZIOA	37
5.1. Monitorizazio- eta jarraipen-sistema.....	38
5.2. Ebaluazio-sistema	40
6. ERANSKINAK.....	41

SARRERA

1



SARRERA

1.1. Dokumentu estrategikoaren irismena eta helburuak

1983an sortu zenetik, bere kideen arteko mugaz haraindiko lankidetzak izan da Pirinioetako Lan Elkartaren (PLE) oinarria. Europako Kontseiluaren babesarekin sortu zen PLE, eta ekimen berritzailea izan zen, Europako lurralde-lankidetzarako politika baino lehenagokoa. Interreg I-III ekimenak abiatu ondoren, 1989an aldagai eta ekintza-eremu berriak txertatu zituen PLEak. 2005ean, Partzuergo bihurtu zen PLE, Espainia-Frantzia-Andorraren arteko POCTEFA IV (2007-2013) eta POCTEFA V (2014-2020) lankidetzak programak kudeatu ahal izateko. Hasiera-hasieratik Europagintzak bultzatuta, eta Pirinioen mugakidetasunak bereziki, sare gisa sortutako elementua da PLE, eboluzionatzen joateko asmoa duena.

Pirinioetako lurraldeen garapen-erronkei erantzuteko, egokitzapenak behar ditu PLEak. PLEaren strategiak planteamendu berezia dauka: partzuergoa izaki, POCTEFA programaren kudeatzaile gisa jardun dezake; horregatik, PLE gertuago dago programa-estrategia izatetik, Pirinioetako estrategia izatetik baino, PLEaren sorreran ezarritako gidalerroetan azaldutakoaren arabera. Nolanahi ere, lurraldearen (berr) antolamendu horrek kontuan izan behar du Europako kohesio-politikaren finantza-tresnek eskuratu duten jakintza.

Lanaren irismen estrategikoa bikoitza da, beraz: alde batetik, mugaz haraindiko garapenaren elementu estrategikoak identifikatzen ditu; bestetik, Pirinioetako mendigunearen ikuspegi globalaren arduraduna den aldetik, PLEak duen egitekoari buruzko hausnarketa egiten du -egun, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia edo KAPB da klimaren arloko gidaria-. Hortaz, lurraldean

eta antolamenduan zentratzen da Estrategiaren ikuspegia. Lan hau are aberasgarriagoa da, kontuan hartzen badugu PLEa ez dela mugaz haraindiko ikuspegia egituratzen duen erakunde bakarra. Pirinioetan dauden bi Euroeskualdeek, Mugaz haraindiko Lankidetzarako Europako Taldeek (MLET) eta CGET-Massif des Pyrénées taldeak, beren estrategia eta beren ikuspegi propioak dituzte, Pirinioetako ikuspegi globalean bildu beharreko mugaz haraindiko garapenari dagokionez.

Egun dauden egituren bitartez bilbatzen den Pirinioetako ikuspegi «erlazional» hau posible izan daiteke ardatz nagusi gisa «Pirinioetako makroeskualde» nozioa hartuta. Pirinioetako Estrategia hau lantzeko baliaitutako metodologia II. atalean dago berariaz azalduta. Makroeskualde-dimentsioaren helburua mugaz haraindiko garapenaren arloan dauden eskala ezberdinak integratzea da. Europako instantziek Alpeetako adibideari jarraikiz proposatu dute ikuspegi hori.

1.2. PLEaren hurbilketa historikoa eta plangintza-tresnak

PLEaren garapen historikoan gehiegi sakondu gabe, gaur egun ikuspegi estrategikoa bideratzen duten hainbat elementu adierazgarri nabarmentzen dira hemen. Analisi historikoak erakusten du dinamikoa dela mugaz haraindiko politika, bete-betean kokatzen dela PLEaren bizitzaren esparru ebolutiboan, erabaki politikoetan eta gidalerro politikoetan, eta garrantzitsua dela aldaketa posibleak aipatzea, etorkizun-sena hobeto aldezteko.

Analisiaren zati honetan, PLEaren ordezkariak egindako ekarpenak jaso ditugu, baita Batzorde Zientifikoak egindakoak ere, elkarlan estuan aritu baitzen alderdi metodologikoa lantzean. Hona

hemen PLEaren ikuspegi estrategikoa bideratu duten printzipio gidariak.

1) Mugaz haraindiko perimetroa

Mugaz haraindiko garapeneren lurralde-mugen hautaketak erakusten duen bezala, bilakaera esanguratsua gertatu da ekintza-perimetroetan. Hasiera batean Frantziako 1985eko Mendi Legeak definitutako «mendigunea» bazen ere mugaketaren eremua (MOPU-DATAR akordioa), ekintza-perimetro zabalagoa da gaur egungoa, POCTEFA programek (07-13 eta 14-20) ezarritako mugaz haraindiko NUTS III mailaren parekidea, eta barnean hartzen ditu Pirinioetako mendi-oinetako lurraldeak ere.

Mugaz haraindiko programen ekintza-perimetroa zabalteak ondorio nabarmenak izan ditu. Ingurumenean eta turismoan ez ezik, eragina izan du lurralde-antolamenduan ere; hots, Pirinioen erakartze-gaitasunaren ardatz nagusia. Eraberean, ondorioak izan ditu Pirinioetako ekonomien mugaz haraindiko mugikortasunean eta konektibitatean. Horregatik guztiagatik, Pirinioetako Estrategia garatzeari begira, egungo POCTEFA 2014-2020 programan zehaztutako perimetroa hartzeak dirudi zentzuzkoena, Batzorde Betearazleak 2017ko ekainean hartutako erabakiarekin bat. Aldaketa txiki batzuekin, hala ere, zeren barnean hartu baitira Teruel probintzia eta Aude departamendua, eta kanpoan utzi baita Errioxako Autonomia Erkidegoa.



2) Mugaz haraindiko garapeneren printzipioa: kohesioa eta osagarritasuna

Frantziako 1985eko Mendi Legeak mendiaren «autogarapena» ezarri zuen nolabait, lurralde espezifiko izendatu baitzuen mendia; 1978ko Espainiako Konstituzioak, bestalde, mendi-inguruei tratamendu berezia emango zaiela xedatzen du 130. artikuluan. Hala eta guztiz ere, araudi horiek ez dute trukean oinarritutako espazio hauen izaera berezi eta erlazionala kontuan hartzen, PLEaren

posizionamendu-printzipioen analisi historikoan azpimarratu denez. Horrek esan nahi du mugaz haraindiko garapeneren nozioa Europako lurralde-kohesioaren baldintzapean dagoela gaur egun.

Mendi-lurraldeen autonomiaz baliatze soila baino sakonagoa da, beraz, mugaz haraindiko garapeneren nozioa; helburu hori baino harago doa. Pirinioetako Estrategia lantzeko orduan, printzipio nagusia ez da antzekotasunak batzea izan, ezberdintasunak konbinatzea baizik, Pirinioetako

kulturen osagarritasunean oinarrituz balio erantsi handiagoa emateko.

2016an, 2016-1888 Legea onartu zen Frantzian, 2016ko abenduaren 28koa, mendi-lurraldeen modernizazioari, garapenari eta babesari buruzkoa.

Esandako guztia dela eta, mendia ondare gisa aitortu behar dela aldarrikatzen du PLEak, eta kontserbazioa eta garapena kontuan hartuko dituen eredu orekatu baten alde egiten du, eragile publikoen partaidetza aktiboaren bitartez. Horregatik da hain beharrezkoa lurraldeari egokitutako eta inguruari transferitzeko moduko mendi-politikak lantzeko aukera emango duten egitura egokiak topatzea.

3) Pirinioetako lurralde-antolamendua

Hasierako posizionamenduaren gakoa ez da Pirinioetako inguru bere muga geografikoen arabera ulertzea, baizik eta etengabe eboluzionatzen ari den mugaz haraindiko gizarteari laguntza ematea eta Pirinioetako lurraldeen aberastasun osoa neurtzea. Horretarako, funtsezkoa da haranek beren artean harreman zuzen eta argia izatea, harreman horretan hiriak inplikatzeko eta mugaz haraindiko eskualdeetako metropoliak ere partaide egitea.

Mendialdea eta kostaldea ingurumenarekin eta turismoarekin lotutako erronketara ez mugatzeko, beste alderdi batzuk ere jorratu ditu ikuspegi estrategikoak. Hori horrela, hausnarketa egitera bultzatzen du mugaz haraindiko enpleguasortzearen inguruan eta mendi-oinetan dauden hiriek mendi-lurraldeetara jotzeko duten irisgarritasunari dagokionez. Hirien eta metropolien loturarik gabe, Pirinioetako inguruak ezin izango du bere garapen ekonomikoa eta turistikoa bermatu. Halaber, bere lurralde zentraletatik isolatzeko arriskua dauka. Lurraldearen antolamenduari buruzko hausnarketak zalantzan jartzen ditu mendigunearen erakartze-gaitasuna eta biztanleek garraibide publikoen bidez duten mugikortasuna. Pirinioetako Estrategian txertatu beharrezkoa da ardatz hori – ikuspegi hori presente dago jada itsasbazterrietako Euroeskualdeen estrategietan, baina analisi berezi bat egin behar da barnealdeko lurraldeen kasuan–.

4) Eskualdeetako metropoliekiko harremana

Lurraldea antolatzeko orduan, aintzat hartu behar da eskualdeetan dauden metropoliek Pirinio-inguruarekiko harremanean duten eginkizun garrantzitsua ere. Mendi-lurralde batzuek metropoliak beren perimetroaren barruan dauzkaten arren (Alpeek, adibidez), Pirinioetan perimetroaren periferian kokatuta daude metropoliak, Andorran izan ezik. POCTEFA 14-20 programaren perimetroak metropoli gehienak integratzea ahalbidetu du; hala eta guztiz ere, oraindik garatu gabe dago metropolien eta Pirinio-eremuen arteko harreman kulturalaren eta ekonomikoen sistema.

Gaur egun, garrantzitsua da Pirinioetako mendiguneko lurralde-antolamenduaren ikuspegiarekin batera dimentsio metropolitarrak planteatzea, horrek sinesgarritasun handiagoa emango diolako espazioaren politika kultural, sozial, ekonomikoa eta ingurumenekoari, epe ertainera eta luzera. Pirinioetako espazioaren kudeaketa bateratua egin ahal izateko, eta haren jasagarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da Europako programen baterako finantzaketari dagokionez eskualdeetako eta metropolietako politiken babesak jasotzea –bereziki, Frantzian, aldaketa administratiboen ondorioz–. Ikuspegi hori, metropolien eta mendiguneeen arteko harremana sustatzean oinarrituta dagoen hori, 2005az geroztik dago PLEan jasota, eta POCTEFA lurralde-lankidetzaren etorkizuneko programazioan sustatu beharrezko printzipio izatera igaro da.

5) Itsasbazter mediterraneo eta atlantikoa esku-hartzeko eremuan sartzea

Espazioen osagarritasunari dagokionez, ikuspegi globala sendotzeari begira, kontuan hartu behar dira mendi-inguruak eta partekatutako egiteko behar dira Mendiguneeen eta itsasbazterreko korridoreen (atlantikoa eta mediterraneo) arteko gaiak. Mendialdearen eta kostaldeen arteko harreman soziala artikulatzea da helburua, horrek areagotu egiten baititu lankidetzaren ekintza bateratutako gauzatze eta mugaz haraindiko iturri ekonomikoa erabiltzeko aukerak.



MENDIA




HIRIKOA

Estrategiaren asmoa da errealitate geografiko, sozial eta ekonomiko horiek bateratuko dituen tresna izatea, lurraldeko erronkei ekiteko.



ITSASERTZA



LANDATARRA

6) Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren lan-eredua

PLEaren gidalerro estrategikoen garapenean, antolamendu- eta gobernantza-eredutzat jotzen da Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (KAPB). Klimaren arloan duen zeharkakotasunak eta diziplina-aniztasunak indartu egiten dute Pirinioetako ikuspegi globala, eta zilegitasun handiagoa ematen diote, klima-eraginak behatzeko espazio zientifiko gisa. Unibertsitateek eta ikerkuntza-zentroek ematen dioten babesari esker, hainbat erabaki hartzen ditu ingurune naturalaren bilakaeraren menpe dauden mendi-jarduerari lotuta.

Hortaz, Pirinioetarako erabilgarriak diren gaitasun estrategikoak baliatzearen adibide bikaina da KAPB.

7) Lurraldeko eragileen partaidetzaren eta konpromisoaren printzipioa

Pirinioetako Estrategiaren printzipio gidarien artean, aipamena egin beharko litzaioke toki-administrazioaren eta tokiko zein lurraldeko eragile sozioekonomikoen partaidetzan eta konpromisoan oinarritutako printzipioari. Azpimarratu beharrekoa da hain zuzen ere konpromisoan eta partaidetzan oinarritutako ideia horrek zilegitasuna eta balio

erantsia eman diezazkiokeela Estrategiari, eta lurraldean benetan aplikatzea ahalbidetu dezakeela.

1.3. PLEaren xedea eta ikuspegia

Dokumentu honen xedea Pirinioetako Estrategiari dagokionez posizio xume, sendo eta zehatza hartzea da. PLE elkarteak besarkatzen dituen lurraldeetako hainbat eragile eta solaskide pribaturekin eta publikorekin lankidetzan egina da. PLE Partzuergoa osatzen duten lurraldeen artean lankidetzara eraginkorra lortzea da helburua. Horretarako, lurraldeen osagarritasuna eta aniztasuna hartu ditugu oinarri, lehia saihestuta elkarrekin hazteko.

Epe laburrean, ertainean eta luzean martxan jartzeko zenbait proposamen eskaintzen ditu dokumentuak. Proposamen horiek PLEko kideek egindako analisiaren eta hausnarketaren emaitza dira, baita lurraldean gako diren eragileekin egindako bileren fruitu ere. Horrez gain, POCTEFAREN programazioan bildutako proiektuen onuradun guztiei bidalitako inkestan eskuratutako erantzunak ere baliatu ditugu ekarpenak jasotzeko, mendiguneko eta itsasbazterreko eragileen ordezkari ezin hobea baita POCTEFA, Batzorde Betearazlearen arabera.

Dokumentu honen helburu nagusietako bat, bestalde, Europak 2020. urtetik aurrera izango duen etorkizunari buruz eta, bereziki, Urte Anitzeko Finantza Esparruaren joerari buruz gaur egun egiten ari diren hausnarketei ekarpen bat egitea da, mugaz haraindiko lankidetzaren esparrutik. Ekarpen hori dokumentu bereizi batean dago jasota; zehazki, «Pirinioetako Lan Elkartea Partzuergoaren Adierazpena, 2020tik aurrerako kohesio-politikari buruzkoa» izenekoan.

1.3.1. Zer-nolako PLEa nahi dugu?

PLEaren lehentasunetako bat ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen aldetik kohesioa sustatzea da, eta estatuen eta eskualdeen artean elkartasuna bultzatzea. Hori guztia, Europako kohesio-politikarekin bat, eta Europar Batasunean eskualdeentzat dagoen inbertsio-tresna bakarrarekin bat.

Urteen poderioz, eta programa operatiboan kudeaketari esker, PLEa konfort-gunean dago gaur egun; erantzun sendoa eman dio Programa Operatiboaren kudeaketari, baina ezin izan du Pirinioetako Estrategian aurrera egiteko moduko lan-ildo bat garatu, sortze-gidalerroetan jasotakoaren modukoa. Hau da, programa operatiboan kudeaketak irentsi egin du ekimen politikoa (Pirinioetako Estrategia), etorkizunera begira proiektzio-aukera hobek bermatzen dituena, oraindik ebatzete dauden gaiak (osasuna, segurtasuna eta ingurumena, besteak beste) soluzioak emanez.

Europako Batzordeak 2017ko irailaren 20an «Europar Batasuneko muga-eskualdeetan hazkundea eta kohesioa sustatzea» izeneko Komunikazioan adierazi zuenaren arabera, Europar Batasuneko muga-eskualdeek:

- Europar Batasunaren lurraldearen % 40 hartzen dute.
- Biztanleen % 30 osatzen dute (150 milioi pertsona).
- Europar Batasuneko barne-produktu gordinaren % 30 sortzen dute.

- Mugaz haraindiko ia 2 milioi bidaiari pendular jasotzen dituzte, hots, Europar Batasunean enplegatutako pertsona guztien % 0,6 (adibidez, Frantzia, 450.000; Alemanian, 270.000; Polonian, 140.000 eta Eslovakian 135.000).

Frantziaren, Espainiaren eta Andorraren arteko mugak, PLEaren lurraldean, datu adierazgarriak eskaintzen ditu, antzeko proportzioetan –aurrerago garatuko ditugu–.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 174. artikulua aitortu egiten ditu muga-eskualdeek aurrean dituzten erronkak, eta xedatzen du Europar Batasunak arreta berezia eskaini behar diela horrelako eskualdeei, beren ekonomian, gizartearen eta lurraldean kohesioa sendotzera zuzendutako ekintzak garatzeko eta abian jartzeko orduan.


Zentzu horretan, Europako Batzordeak adierazi du honako hauek direla Interreg programen lorpen nagusiak: konfiantza areagotzea, konektibitatea handitzea, ingurumenaren egoera hobetzea, osasuna hobetzea eta hazkunde ekonomikoa bultzatzea. Pertsonen arteko proiektuetatik hasita azpiegiturretan egindako inbertsioetara bitarte, eta lankidetzaren instituzionaleko ekimenen babesa kontuan hartuta, Interreg benetan erabakigarria izan da muga-eskualdeentzat, eta eraldatzen ere lagundu die.

Aurreko guztia kontuan hartuta, beraz, epe laburrean eta ertainean Pirinioetako Estrategian jorratu beharreko alderdirik adierazgarrienak zehaztu nahi ditu dokumentu honek, eta programazioaren ildoan epe luzerako ezarritako utzi nahi du, Europar Batasunak 2021-2027 aldirako sortutako Urte Anitzeko Finantza Esparru berriaren baitan.

Testuinguru horretan, Pirinioetako Estrategiak balio erantsi handiagoa sortuko du Programa Operatibo baten kudeaketak izan dezakeena baino, eta mugaz haraindiko garapena bermatuko du, Europaren kohesio-printzipioarekin bat.

1.3.2. POCTEFAren kudeaketa operatiboa (2007-2020)

POCTEFA programaren eremu hautagarriak Frantziaren eta Espainiaren arteko mugan dauden



departamendu eta probintziak eta Andorrako Printzerria biltzen ditu. Lankidetza-programaren eremu hautagarriaren baitan Espainia, Frantzia eta Andorra Estatu kideetako 17 NUTS III daude.

2007-2013 aldian, guztira 168.641.485 euro erabili dira 638 onuradunek burututako 152 proiektu finantzatzeko.


2014-2020 aldian, guztira 189.341.397 euro erabiliko dira proiektuak finantzatzeko. Gaur arte, lehenengo deialdian 58 proiektu programatu dira, orotara 71.192.036 euroekin, eta bigarren deialdian 62 proiektu, orotara 71.100.000 euroekin.

1.3.3. Lurralde-analisirako elementuak

Pirinioetako Estrategia PLEko kide guztiek adostutako esparrua da, eta Pirinioetako Estrategiaren perimetroan bizi diren 15 milioi pertsona ingururen (Europar Batasuneko biztanleriaren % 2,92) erronka komunak jorratzeko

aukera ematen du. Biztanle horiek guztiak hiru herrialdetan sakabanatutako zazpi eskualdetan bizi dira; hiru horietatik bi Europar Batasuneko Estatu kide dira (Espainia eta Frantzia), eta bat ez (Andorra). Eremu geografiko hau bereziki egokia da lankidetzan aritzeko eta, ondorioz, ekonomia, gizartea eta lurraldea kohesionatzeko politikek arrakasta izateko.

Estrategia tresna optimo gisa eraiki behar da panorama ezberdin baten baitan, hiri-dinamikak eta mendialdeko landa-dinamikak konbinatuta; betiere, Pirinioetako mendi-oinak eta errealitate geografiko zein ekonomiko ezberdinak (itsasbazterrekoa eta mendialdekoa) ahaztugabe. PLEaren ekintza guztiak lau maila adierazgarri horietan zentratu behar dira, eta Estrategiaren proiektuek edo etorkizuneko ekintzek onura nabarmena eragin behar diete lau eremuen arteko sinergieiei, eta horietan ordezkatuta egon beharko dute, PLEko kideez gain, lau eremuak osatzen dituzten lurraldeek.



Hain ezberdinak diren lau zati horiek osotasun bakar eta, aldi berean, askotarikoa lor dezakete, non mendialdeak eta itsasbazterrak, hiri-inguruneak eta landa-eremuak behar besteko independentzia izango duten, eta baten arrakastak besteena bermatuko duen.

Pirinioetako Estrategiak, bere ekintzen eta proiektuen aurretiko analisian, oso kontuan izan behar ditu lau dimentsio hauek: itsasbazter-mendialdea-hiria-landa.

1.3.4. Pirinioetako mugaz haraindiko lankidetzaren erronkak eta aukerak

INTERREG VA programaren kasuan bezala, PLEak garatutako mugaz haraindiko lankidetzaren helburua hasiera-hasieratik izan da mugako eskualdeetan identifikatutako erronka komunak jorratzea, mugako guneetan aprobe txatu gabeko hazkunde-potentziala esploratzea eta, aldi berean, lankidetzaren prozesua hobetzea, Europar Batasun osoaren garapen harmoniatsua lortze aldera.

Azken bi Programa Operatiboen (2007-2013 eta 2014-2020) analisiaren bitartez identifikatutako erronkez gain, beste erronka hauek ere identifikatu ditugu:

- Bereziki konektibitateari lotutako irismen-zailtasunak, IKTen erabilera, mugaz haraindiko azpiegiturak, jardunerako proposak ez diren enpresa-inguruetan gainbeheran dauden tokiko industriak, administrazioen arteko interkonektibitate handiagoa izateko beharra.
- Ikerkuntza- eta berrikuntza-maila heterogeneoak.
- Ingurumenaren kutsadura eta arriskuen prebentzioa.
- Inguru turistikoetan, nekazaritzako elikagaietara bideratutakoetan, eremu kultural eta linguistikoetan garatutako ekintzen bitartez bizi-kalitatea hobetzeko epe luzerako estrategiarik eza eta, ondorioz, hurbileko zerbitzuak ezin bermatzea.

Batzordeak COM (2017) 534 azkena Komunikazioan azpimarratu zuenez, muga-eskualdeetan txikia

izaten da zerbitzu publikoak (hala nola ospitaleak eta unibertsitateak) erabiltzeko aukera. Sarritan, sistema administratibo eta juridiko ezberdinen artean ibili behar izateak konplexua eta neketsua izaten jarraitzen du.

2007-2013 eta 2014-2020 programazioetan bildutako lankidetzaproiektuen emaitzetatik abiatuta, erreferente adierazgarrienak identifikatu nahi dira. Lurraldean oihartzun eta jarraitutasun handiena lortu duten proiektuak bilatzen dira. Era beran, parte-hartze instituzional handiaren ondorioz PLEarentzat enblematikoak izan diren proiektuak ere bilatzen dira, horiek izan duten finantza-zuzkiduragatik, interes sozialagatik eta berrikuntza teknologiko handiagatik, baita lurraldeari eman dioten balio erantsiagatik ere.

Ildo horri jarraikiz, PLEarentzat funtsezkoa da jarraian adierazitako arloetan sakontzea, Pirinioei hazkunde-aukera adierazgarriak eskaintzen baitizkiete:

a) Nekazaritza

PLEaren lurraldean dauden nekazaritza-enpresa txiki eta ertainen profesionaltasuna, lehiakortasuna eta nazioartekotzea sustatzea oso onuragarria izan daiteke Pirinioetako nekazaritzako elikagaien sarearentzat. Horretarako, hainbat neurri ezar daitezke; besteak beste, hurbileko elikadura-zirkuituak sustatzea edo mugaren bi aldeetan eskaintza komertzial eta turistikoa garatzea.

b) Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularretan, produktuen eta materialen balioa ahalik eta gehien luzatzen da denboran; hondakinak eta baliabideen erabilera ahalik eta gehien murrizten dira, eta baliabideei ekonomiaren barruan eusten zaie produktuaren bizitza baliagarria amaitzen denean, berriz ere erabiltzeko eta balioa sortzen jarraitzeko helburuarekin. Europar Batasunaren gomendioekin lerrokatuta, PLEaren eremuan eredu hau gomendatzeak eta martxan jartzeak enplegua sor dezake, abantaila lehiakorra eragingo duten berrikuntzak sor ditzake

eta pertsonen zein ingurumenaren babes-maila hobetu ditzake. Gainera, kontsumitzaileei produktu iraunkor eta berritzaileagoak eskaini diezazkieke, bidenabar aurrezpen ekonomikoa eta bizi-kalitate hobea bultzatuz.

c) Turismoa

PLEaren eremuan dagoeneko hasi dira merkatu fisikoen zein online merkatuen eta turismo gastronomikoaren bitartez nekazaritako elikagaiak sustatzen, edo inguruko balio natural eta kulturalarekin lotutako turismo- eta aisialdi-jarduerak ahalbidetuko dituen eskaintza ekoturistikoa sortzen. Ekimen horiek guztiek turismo iraunkorra sustatzen laguntzen dute, turistei baliabideez gozatzeko aukera eskainita eta etorkizuneko belaunaldiek ere hala egin ahal izan dezaten bermatuta.

d) Garraioa eta konektibitatea

Europako Batzordeak berak azpimarratzen duenez, garraioak nabarmen errazten ditu eskualdeen arteko trukeak, muga nazionalen gaindi. Garraio publikoko zerbitzuek, integrazio-prozesuak bultzatzeaz gain, mugaz haraindiko jasangarritasuna areagotu ere egiten dute. Garraio publikoko zerbitzuen interoperabilitate ezak, eskasak edo baxuak errealitate izaten jarraitzen dute mugaz haraindiko eskualdeetako biztanle askorentzat. Horregatik, arlo horretan lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du PLEak, biztanleei garraio publikoko zerbitzu hobeak eta integratuagoak eskaini ahal izateko.

Mugaz haraindiko igarobideak diseinatzeko eta programatzerako orduan, ezin dugu lehia aurrerapen-faktore gisa ezarri. Bere lurraldeko biztanleen bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako tresna izan behar du PLEak.

Gainera, gero eta garrantzitsuagoa denez biztanle guztiek konektibitate mugikorra eta haririk gabeta edukitzea -zerbitzu eta aplikazio berriak edonon erabiltzen baitira-, azpiegitura garapenaren faktore gako bilakatzen da Pirinioetan, konektibitate-aukera berriak ematen dituelako.

3. COM(2017)534 azkena
4. Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2017ko ekainaren 1ekoa, hazkundea, lehiakortasuna eta kohesioa bultzatzeko Interneten konektibitateari buruzkoa: Europako gigabit eta 5Garen gizartea

Azpiegitura digitalaren hedapenari lehentasuna emanaz gero, ekonomia digitalaren eraldaketan onurak jasoko ditu lurraldeak.

e) Ingurumena eta ondare kulturala, naturala eta linguistikoa zaintzea

Aberastasun natural handikoa da Pirinioetako ingurumen-eremua, eta, gainera, azalera handia hartzen duen espazio babestuek. Eremu hori zaintzeak eta babesteak, eta baliabideak modu jasangarrian erabiltzeak, Pirinioetako ondare naturala modu jasangarrian kudeatzean indarrak batzeko eta esperientziak trukatzeko aukera ematen du.

Bertako baliabide hidrikoak, floraren eta faunaren aniztasuna, eta bertako basoak kontuan hartuta, ezinbestekoa da isurialde bietako lurraldeetan izan litezkeen arrisku komunak neurtzea eta baloratzea. Bestalde, eskualdeak potentzial handia dauka bertan energia berriztagarriak garatzeko (biomasa, energia eolikoa, eguzki-energia, itsas energia edo energia hidroelektrikoa).

Klimaren, ekosistemen, erabileren eta ohituren aldetik aniztasun handiko lurraldea da, eta hizkuntzen ugaritasun aberatsak, gainera, indartu egiten du biztanleen kultura-aniztasuna. Proiektuen emaitzak ezagutarazteko orduan, PLEaren eremuan bizi diren biztanleei zer informazio eman beharko litzaiekeen aztertzea komeni da, beren aniztasun kultural eta linguistikoa aintzat hartuta. Horrela, iraunkortasunaren logikaren barruan, merezi duten balioa emango litzaieke lurraldeei eta horietako bakoitzaren ondare natural, kultural eta linguistikoari.

f) Klima-aldaketa eta arriskuen prebentzioa

Klima-aldaketaren eraginak agerikoak dira dagoeneko (bero-boladak, negu leunak, lehorteak, uholdeak...); are gehiago Pirinioetan. Hori dela eta, PLEak, Midi-Pyrénées eskualdearen gidaritzapean, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (KAPB) abiatzea erabaki zuen 2010ean. Klima-aldaketari buruzko mugaz haraindiko lankidetzarako ekimena da KAPB, eta aipatutako eraginak zorrozki

kuantifikatzea du helburu. Horretarako, komunitate zientifikoarengana jo zuen lehenik eta behin.

KAPBaren bitartez, PLE sarean aritu daiteke ikerkuntza-zentroekin eta lurraldeko eragile sozioekonomikoekin lanean. Gaur egun, 80 ikerkuntza-zentro eta erakunde baino gehiago ari dira PLEarekin elkarlanean.

Hain zuzen ere, POCTEFA 2014-2020 programaren lehen eta bigarren deialdietan, bazkideen gobernantza berritzailea artikulatu zuen KAPB behatokiak: 5 proiektu tematiko, ikuspegi bateratu bakarrean koordinatuta, klima-aldaketaren kontra lan egiteko lankidetzaren baitan. Proiektu horiek **Koordinazio Batzordea** osatzen dute eta ezagutza zientifiko zehatzak eskaintzen dituzte klima-aldaketaren eraginen inguruan, honako arlo hauetan: klimatologia, basoak, goi-mendiko aintzira eta zohikaztegiak, flora eta baliabide hibridoak.

Bestalde, aurrerago, **PLEko kide diren gobernuetako lurralde-erreferenteek KAPBaren Batzorde Teknikoa** osatu zuten, eta haiek proposatzen dituzte PLEaren Batzorde Betearazlearen ekintzak.

Laburbilduz, zientziaren, politika publikoen eta lurraldeko eragileen topagunea da KAPB; hortaz, gobernantza onaren eta sareko lan eraginkorraren adibidea ere bada.

g) Berrikuntza eta ETEak

Jarduera ekonomikoen, berrikuntzaren eta giza kapitalaren osagarritasunari balioa emanaz indartu behar du PLEak mugaz haraindiko integrazioa.

Zentzu horretan, POCTEFAren esparruan onartutako proiektuen artean, zenbait adibide arrakastatsu identifikatu ditu PLEak, baina arlo honetan aurrera egiten jarraitzeko asmoa dauka, I+G+Bn inbertsioa sustatuz, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatuz, enpresen, ikerkuntza-zentron eta goi-mailako hezkuntzaren arteko lotura eta sinergiak garatuz, eta nazioartean ETEen lehiakortasuna hobetuz. Pirinioetako Estrategiarentzat, zeharkako kontzeptua da berrikuntza, eta ardatz guztietan aplikagarria.

Zentzu horretan, Pirinioetako Estrategiak kontuan izango du Europako Lurralde Lankidetzarako Erregelamenduaren 5. osagaia, «berrikuntzarako eskualdearteko inbertsioak» aldarrikatzen dituen, «Europako balio-kateen garapena sustatu dezaketen eskualdearteko berrikuntza proiektuen merkaturatze eta zabaltzearen bidez».

h) Osasun-laguntzako zentroen partekatze handiagoa eta larrialdi-zerbitzuen koordinazio handiagoa sustatzea, baita segurtasun-zerbitzuena ere

Europako Batzordeak adierazi duen bezala, larrialdi- eta erreskate-zerbitzuek ere arazoak izaten dituzte batzuetan, mugaz haraindiko esku-hartzeak gauzatzeko.

Batzordeak Estatu kideen arteko lankidetzaren sustatzea proposatu du, mugaz haraindiko eskualdeetan osasun-zerbitzuen osagarritasuna areagotze aldera.

Izan ere, larrialdiek ez dute mugarik. Hori horrela, PLEak Pirinioetako osasun-larrialdiei buruzko proiektu pilotu bat aurkeztu du, zazpi lurraldeen parte-hartzearekin.

Garrantzitsua da identifikatutako zailtasunak gainditzea (oztopo administratiboak, estatu bakoitzaren osasun-erakundearen ezberdintasunak eta pazienteentzako arreta-arazoak), eta, hortaz, pazienteari arreta hobea eskaini ahal izateko funtsezkoa da mugaz sinergiak hobeto garatzea, inguru horietako biztanleek (proiektu pilotu honen xede diren mugaz haraindiko eskualdeetan etengabe zein tarteka bizi direnek) larrialdietako arreta eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa jaso ahal izan dezaten. Pirinioetan osasunaren arloan dauden hutsuneak murriztuko lituzkeen proiektu askoz zabalago baterako lehen urratsa izan liteke hori.

Segurtasunari dagokionez, babes zibilaren ikuspegitik ulertuta, dagoeneko garatu diren edo aribidean dauden POCTEFA proiektu ugariaren emaitzekin lan egin dezake PLEak.

i) PLEaren rol politikoaP

PLEko kide guztiek uste dute erakundeak sortu zenean zeukan rol politikoa berreskuratu behar duela. Horregatik, PLEa lobby bihurtzea nahi lukete, eta rol berri hori betetzeko oinarri gisa hartzea bai Pirinioetako Estrategia, bai aurretik aipatutako posizionamendu-dokumentua.

Gainera, ikuspegi orokorrago batetik, Pirinioak agenda politikoan sartzea da PLEaren helburua, eta tartean nahasitako aldean arteko koordinazioa indartzea, aurretik dauden ekimenen arteko koherentzia bermatuz, hutsuneak betez, bikoizketak saihestuz eta finantzaketa harmonizatuz.

1.3.5.2018-2024 aldirako Pirinioetako Estrategiaren edukia eta helburuak

Pirinioetako Estrategia ekintza-plan bizi gisa jarriko da abian eta doitzen joan ahal izango da. Hiru ardatz estrategiko izango ditu, eta zeharkako ardatz bat. Era berean, zazpi lurraldeen parte-hartzearen bidez Estrategiaren birprogramazio-prozesuaren baitan adostuko diren zenbait ekintza operatibo ere ezarriko dira.

Hauek dira ardatz bakoitzaren helburuak eta ekintzak:

1. Klimaren alde ekitea

Ardatz honek bi helburu ditu:

- Ekintzak finkatzea.
- KAPBari izaera operatiboagoa ematea, biztanleengan eragin handiagoa izan dezan. Horrela, Pirinioetan garapen jasagarriaren eredu gisa, ingurumenaren zaintzari eta garapenari lotutako beste jarduera-esparru batzuei aurre egin ahal izango zaie, besteak beste, ekonomia zirkularra sustatuz, eta nekazaritzan ingurumena, lurraldea, elurra eta basoak errespetatuko dituzten metodoak garatuz, klima-aldaketak oso eragin handia baitu bi horiengan. 2. ardatzaren jarduera-esparruan gauzatu ahal izango litzateke hori.

KAPB, PLEaren proiektu enblematikoa, tresna erabilgarri eta operatibo gisa finkatu da Europan, eta kapitalizazioaren adibide da Programa Operatiboan. Horregatik, tresna honek jarraitutasuna izan behar du ezinbestean, eta, klima-aldaketaren gaiari mugatuta egon beharrez, ingurumenaren babesari lotutako erronka berrietara hedatu beharko litzateke.

Gainera, gobernantza-eredu egokia dela erakutsi duenez, PLEak kudeatzen dituen beste proiektu tematiko batzuetan ere aprobetxa liteke.

2. Ekimenak sustatzea eta lurraldearen erakargarritasuna indartzea

Ardatz honen helburuak honako hauek dira:

- POCTEFA esparruan eta bestelako programetan identifikatutako proiektuen bitartez arrakasta-ereduak errepikatzea, lurraldeei jardunbide egokien berri emateko arlo hauetan: turismoa, nekazaritzako elikagaiak, ekonomia zirkularra, berrikuntza, aniztasuna eta inklusioa, ondare kultural, natural eta linguistikoa, hurbileko zerbitzuak eta segurtasuna (babes zibila).
- Urte Anitzeko Finantza Esparruko finantzaketa-iturri berriak eskuratzea, kohesio-politikatik kanpo.

Horretarako, PLEko Garapen eta Dinamizazio Unitatea (GDU) jarriko da martxan, Pirinioetako biztanleei zuzendutako zerbitzuak garatu ahal izateko.

Era berean, formula berriak ere esperimintatu nahi dira, programa handietan (mugaz haraindiko lankidetzaren programetan, adibidez) sartzeko behar besteko tamaina ez duten proiektu txikiak finantzatzeko. Ekintza horren inplementazioa zehaztasun osoz aztertu behar da, eta ezin da balizko kudeaketa-zailtasunek baldintzatuta egon, horrek uxatu egingo bailituzke eragile potentzialak. Hau da, lurraldeko biztanleentzako probetxua izan behar da ezarpenaren egokitasuna baloratzeko irizpide bakarra.

3. Mugikortasuna, konektibitatea eta irisgarritasuna

Azpiegituz, garraioaz eta komunikabideez arduratzen diren Batzordeen egitekoak berrabiaraztea da ardatz honen helburu nagusia, PLE POCTEFAren kudeaketa-agintaritzak bilakatu aurretiko egoerara itzultzeko. Horretarako, konexio digital eta energetikoak txertatuko dira.

4. Gobernantza, kapitalizazioa eta komunikazioa

4. ardatzaren edo zeharkako ardatzaren helburu nagusia hau da: PLE Europa-mailako lobby bilakatuko dela ziurtatzea eta mugaz haraindiko lankidetzaren erreferente iraunkor gisa sustatzea, Europako lurralde-lankidetzan gero eta eragin handiagoa izan dezan, finantzaketa-iturri berriak erakarriahalizateko, erregulartasunez hausnarketa-taldeetan parte hartu ahal izateko eta bere ekintzak ikusarazteko. Horretarako, Europako Batzordeak Pirinioetako Estrategia babestea lortu behar du PLEak lehenik eta behin.

Lobby gisa eratu baino lehen, bokazio hori bera duen beste egiturarik baden egiaztatu beharko du PLEak. Era berean, zertresnajuridiko beharko dituen aztertu beharko du, eta argi eta garbi zehaztu beharko ditu bere helburuak -Pirinioetako gobernantzaren alde diharduten gainerako eragileekin koordinatuta eta lankidetzan jardutera zuzenduta egongo dira betiere helburu horiek-. Gobernantza hori eskala anitzeko ikuspegian oinarrituta definitu beharko da, aurretiko akordio edo ekintzak kontuan hartuta (besteak beste, Málaga 2017ko Goi-bilera eta babes zibilaren gaitan lortutako akordioak).

PLEko kideen iritzian, hau da elkarrekin osatzen duten pertsonen, lurraldeen eta instituzioen alde jarduteko modurik aproposena.

5. Pirinioetako Estrategiaren helburu orokorrak

Lurralde bakoitzak izendatutako solaskideei kontsulta egin ondoren, Pirinioetako Estrategiak helburu orokor hauek lortzeko ere egin beharko du lan:

- PLEak rol dinamizatzailea hartu beharko du eta jardunbide egokien kapitalizazioa bultzatu

beharko du proiektuen artean, betiere mugaz haraindiko lankidetzak-ekimen mota oro kontuan hartuta, ez soilik POCTEFA. Lan hori PLEko kideekin lankidetzak estuan arituz egin beharko da.

- POCTEFAtik harago, finantzaketa-iturriek dagokienez rol informatiboa hartu beharko du PLEak, betiere lurraldeen arteko zeharkako ikuspegi batean oinarrituta. Horretarako, oso kontuan izan beharko ditu bakoitzaren berezitasunak, onuradun potentzialentzako babes teknikoan zentratu gabe, zeina PLEko kideen bulego teknikoek hartuko duten beren gain.
- Pirinioetako Estrategiaren ardatzen tresnak asmo handiko ikuspegi oinarrituta eraiki behar dira, eta epe luzera begira. Proiektuak biltzea izango da haren egitekoa eta, bigarren maila batean, ardatz horretan dibulgatzaile eta informazio-biltzaile jardutea. Beren operatibitatea bermatu ostean ekin beharko zaio lanari, ez lehenago.

1.3.6. Finantzaketa

Estrategia honi babesa ematean, eta Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek (EIE Funtsek) eman ditzaketan baliabideak kontuan hartu gabe, kide diren lurraldeetako gobernuak konpromisoa hartzen dute Europar Batasunaren beste funts eta tresna batzuk aprobetxatzeko -baldu eta Estrategiaren helburuak lortzeko aproposak badira-, EIE Funtsekin sinergiak eta osagarritasunak ezarriz.

EIE Funtsetatik eratorritako ekarpen ekonomikoak aztertzeke daude oraindik, makroeskualek jasotzen dituzten ekarpenak bezalaxe. Taktika hau eta beste batzuk baliagarriak izan daitezke sektore, maila eta eskualde anitzeko gobernantza batean lan-plataformak ezartzeko. Europako testuinguruan erabat berritzailea litzateke hori.

Zentzu horretan, Europako Eskualdeetako Lantaldeak maila anitzeko gobernantzaren Europako Gutuna onartu zuen bere 106. Osoko Bilkuran. Dokumentu horretan, balio komun multzoa ezartzen da eta Europaren gobernantza egokiaren printzipio eta prozesu espezifikoko definitzen dira. Pirinioetako Estrategiaren bitartez, gutun horretan jasotako printzipioetan oinarrituko

da PLEa; nahiz eta loteslea ez izan, sinatzaileek konpromisoa hartzen baitute politika publikoen kudeaketan maila anitzeko gobernantza erabiltzeko, proiektuak sektore publiko eta pribatuarekin batera sustatzeko, lurralde-lankidetzak garatzeko eta administrazioak modernizatzen.

PLEaren arabera, Europako programen eta proiektuen baterako finantzaketak balio erantsia areagotzeko aukera ematen du, elkarren arteko lankidetzak sustatzen baita, baliabide propioak helburu komunak lortzera bideratzen direlako. Bereziki:

EIE Funtsek

- **FEADER eta FEMP**

Estrategiaren helburuak lortzen eta ekintzak gauzatzen lagun dezakete. Landa- eta arrantza-eremuetako Landa Garapenerako Programen neurriak lagungarriak izan daitezke enplegua sortzeko eta berrikuntza sustatzeko orduan.

Europar Batasuneko beste funts batzuk

- **H2020**

Europako testuinguruan hainbat arlotan ikerkuntza- eta berrikuntza-proiektuak finantzatzen dituen programa da. PLEko ikertzaileak, enpresak, zentro teknologikoak eta erakunde publikoak izan litezke programa honen onuradun.

- **Europa Konektatu mekanismoa (CEF)**

Europa Konektatu mekanismoak interes komuneko proiektuak prestatzeko eta gauzatzeko aukera ematen du Europaz haraindiko sareei buruzko politiken esparruan, garraioari, telekomunikazioei eta energiari dagokienez.

- **COSME**

Europar Batasunak enpresen eta ETEen lehiakortasunerako duen programa da COSME. Programa honen bitartez, Europako Batzordeak ekintzailak sustatzen du eta ETEen enpresa-alorra hobetzen du, ekonomia globalean beren potentzial osoa askatzeko aukera eskainita.

- **LIFE**

Europar Batasunak ingurumena babesteko, natura zaintzeko eta klima babesteko duen finantza-tresna da LIFE.

- **Europa Sortzailea**

Europako Batzordeak Europako zinema eta sektore kultural zein sortzailea babesteko duen esparru-programa da. PLEak ibilbide adierazgarria izan du besteak beste zirkuaren sektorea dinamizatzeko proiektuak programatzen. Horrek kultura arloko enpleguei dagokienez POCTEFA proiektuen eta horien emaitzen aniztasuna sinbolizatzen du. Hala, Europa Sortzailea programaren proiektuen eraikuntzan lan egin lezake PLEak, eta horiei etekina atera liezaiekete Europar Batasunean hainbat arlotan aritzen diren milaka artista, profesional eta erakundek (kultura zein ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, arte ederrak, edizioa, zinea, telebista, musika, diziplina arteko arteak, ondarea eta bideo-jokoen industria).

Finantzaketa horri esker, Europa osoan barna aritzeko aukera izango dute, ikusle berriengana iristeko, eta garai digitalean beharrezkoak diren ezagutzak eskuratu ahal izateko. Europako kultura-lanei beste herrialde batzuetako ikusleengana iristeko laguntza emanda, Pirinioetako kultura- zein hizkuntza-aniztasuna zaintzen ere lagunduko du programa honek.

- **Interreg SUDOE**

Interreg SUDOE Programak Europako hegomendebaldeko eskualdeen garapena babesten du, EGEF Funtsaren bitartez nazioz haraindiko proiektuak finantzatuz. Horrela, aipatutako lurraldeko eskualdeetako problematika komunak jorrazteko nazioz haraindiko lankidetzak sustatzen du. Besteak beste, jorrazteko dira ikerketa eta garapenean inbertsio txikia, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasun txikia, eta klima-aldaketaren zein ingurumen-arriskuen eragina. Hala eta guztiz ere, Europako Batzordeak datorren programazio-aldian nazioz haraindiko programek izango duten etorkizunari

buruz egindako proposamenak goitik behera alda lezake egungo edukia.

- **Interreg MED**

Interreg MED Programaren helburu nagusia Mediterraneo-eremuan hazkunde jasangarria sustatzea da. Horretarako, kontzeptu eta jardunbide berritzaileak sustatzen ditu, baita baliabideen zentzuzko erabilera ere, lurraldean oinarritutako lankidetzak-ikuspegi integratuaren bitartez integrazio soziala babestuz.

- **Interreg Espazio Atlantikoa**

Honako arlo hauetan lankidetzak sustatzen du Europako programa honek: berrikuntza eta lehiakortasuna, baliabideen efizientzia, lurralde-arriskuen kudeaketa, biodibertsitatea, eta ondare natural eta kulturala.

- **Interreg EUROPE**

Europa osoko eskualdeetako eta tokiko gobernuen politika hobeak garatzen eta ezartzen laguntzeko asmoz sortua da Interreg EUROPE programa. Interreg Europe programaren finantza-babesarekin garatutako ekintza orok lau kategoria hauetako batean bilduta egon behar du:

- Ikerketa eta berrikuntza
- ETEen lehiakortasuna
- Karbono-erabilera txikiko ekonomia
- Ingurumena eta baliabideen efizientzia

Beste finantzaketa-iturri batzuk

Beste finantzaketa-iturri batzuetara ere jo daiteke; bereziki, Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa -Juncker Plana deiturikoa-, Europako Inbertsio Bankura eta nazioarteko beste finantza-erakunde batzuetara.

Litekeena da, 2021-2027 aldirako programak ezartzeko Estatu kideek eta Europako Batzordeak negoziatioak egin aurretik edo bitartean, PLEko eskualde kideek erabaki behar izatea nola egokituko duten Pirinioetako Estrategia programa berrietara. Lurraldean logika mantendu ahal izateko, komenigarria da programa hauek egin bitartean,

6. <https://ec.europa.eu/commission/priorities/jobs-growth-and-investment/investment-plan-europe-juncker-plan/european-fund-strategic-investments-efsi-es>

baita garapen-aldian ere, POCTEFaren Jarraipen Batzordea izango denak PLEaren Pirinioetako Estrategia kontuan hartzea, guztientzat izango baita onuragarria.

Adibidez:

- Estrategiaren ardatzetan intereseko diren proiektuei lehentasuna ematea, proiektu horietarako deialdi espezifikoak antolatzea («eredu arrakastatsuen errepikapenak» izan daitezke) eta beste programa batzuekin batera finantzatu daitezkeen eragiketak identifikatzea.
- Eskualdearteko garapenean eta nazioz haraindiko lankidetzan zentratutako ardatz bat ezartzea.
- Programa operatiboetan lankidetzarako proiektu eta bazkide potentzialak identifikatzea.
- Proiektuetan hautaketa-irizpideak ezartzea, makroeskualdean eragin estrategiko argia duten proiektuei -Estrategiaren ekintza operatiboen helburu eta inplementazioan lagun dezaketenei- lehentasun argia emanaz.
- Aurrekontuen kopuru zehatz bat Estrategiarako egokiak diren jarduera edo proiektuetara bideratzea.
- Aparteko paragrafo batean azaltzea Pirinioetako Estrategiaren helburu eta lehentasunak nola islatuko diren programen ezarpenean.

Beste makroeskualde-estrategia batzuek finantzaketa berritzaileari dagokionez egindako lana ere aprobetxatu behar du Estrategiak, eta lan-ildoak ezarri behar ditu, Interreg SUDOE, Interreg Europe eta abarrekin elkarlanean aritzeko.

IKUSPEGI METODOLOGIKOA

2



IKUSPEGI METODOLOGIKOA

PLEaren lurralde- eta antolamendu-estrategiaren ikuspegi metodologikoak logika bikoitza du oinarri: PLEko kidekiko adostasuna eta PLEko kideek izendatutako aditu kualifikatuen kontsulta.

Elkarreragin erregular horri esker, honako hauek egin dira:

- Pirinioetako mugaz haraindiko politika potentzialaren analisia, programa ezberdinetan garatutako diagnostikoen eta ikuspegi estrategikoetan oinarrituta.
- PLEaren egituraren, ibilbide historikoaren eta egungo zein etorkizuneko posizionamenduaren analisia.

Analisi horiek elkarren arteko osagarri izan arren, ikuspegi metodologiko ezberdinetan oinarrituta daude, egun martxan dauden mugaz haraindiko estrategiak perimetro eta gobernantza-sistema ezberdinetan oinarritzen direlako (MLET, euroeskualdeak, Mendiguneari buruzko Hitzarmena, etab.). Alde batetik, Pirinioetako garapen komun eta mugaz haraindikoaren dinamika justifikatzen duten elementuak ulertu nahi izan dira; eta, bestetik, PLEaren egituraren posizionamenduaren helburu estrategikoei buruz hausnartu da (xedearen bilakaera historikoa eta etorkizuneko bilakaera).

Azken batean, gidalerro bi horiek elkarrengandik aberasten dira Pirinioetako ikuspegi global eta funtzionala lortzeko. Hala, ikuspegia egungo esku-hartze perimetroetatik harago joan liteke eta erronka komunei erantzuteko tokian tokiko elementu zehatzak sortzea eragin lezake. Ikuspegi honek mugaz haraindiko izaeraren gaineko kontzientziazioa sendotzea du helburu.



Gainera, eskema metodologikoa txukun egiteko, funtsezkoa izan da genero-ikuspegia kontuan hartzea. Ikuspegi hori oso kontuan izango da ardatz estrategikoak (bereziki, 2. ardatza) eta kanpokoen partaidetzarako prozesuak martxan jartzeko orduan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1299/2013 Erregelamenduaren, 2013ko abenduaren 17koaren, 4. artikuluko 7c atalean jasotako oharrei dagokien erkidegoko erregelamenduan xedatutakoaren arabera -zeinak Europako lurralde-lankidetzan genero-ikuspegiarekin lotutako helburua arautzen duen-, proiektuek bereziki kontuan hartu beharko lukete gai honen tratamendua, zenbait eremu hautagarriri nabarmen eragiten baitie.

Eskema metodologikoa honako hau izan da:



PIRINIOETAKO ESTRATEGIA BIRPROGRAMATZEKO PROZESUAREN ETAPAK



ETAPA 1: Diagnostikoa

Diagnostikoa egiteko orduan, testuinguruaren analisia hartu da oinarri gisa, baita gako diren eragileekin egindako kontsulta-prozesuak eta PLEaren barne-antolamendua ere.

Testuinguruaren analisia

Pirinioetako lurraldeari eta bertako eskualdeei dagozkien estrategiak eta programak biltzeari eta analizatzeari ekin zitzaion; honako hauek, bereziki:

- a) PLEaren jarduketa-eremuaren analisia.
- b) Eskualde eta autonomia-erkidego mugakideen arteko mugaz haraindiko lankidetzarako eskualdearteko estrategiak (funts komunak).
- c) PLEaren eremuko euroeskualdeetako estrategiak.
- d) 2014-2020 aldirako Espainia-Frantzia-Andorraren arteko lankidetzara-programaren estrategia, eta 2000-2006 eta 2007-2013 aldietatik aurrera izandako bilakaeraren alderaketa.
- e) PLEaren ekimenetarako estrategiak; bereziki, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (KAPB).
- f) Makroeskualdeetako estrategiak, PLEaren jarduketa-eremutik harago (bereziki, Alpeetako eskualdea).
- g) PLEaren Batzorde Betearazlea osatzen duten eskualdeetako eta autonomia-erkidegoetako RIS3 berrikuntza-estategiak. Arreta berezia berrikuntzarekin lotutako puntu komunei.
- h) Frantzian, lurralde-estategien modalitateak; bereziki, 2014-2020 aldirako Mendiguneko Eskualdearteko Hitzarmena (CGET-Massif des Pyrénées) eta 2014-2020 aldirako POI Massif des Pyrénées.
- i) Frantziako eskualdeetako eta Espainiako autonomia-erkidegoetako EGEF eta FSE eskualde-estategiak, beren Programa Operatiboetan lankidetzari lotutako alderdiak garatzen dituztenean.

PLEan gako diren eragileen partaidetza- eta kontsulta-prozesuak

Gako diren eragileen mapa egin zen, PLEko kideetatik hasita eta eskualde-azpiko erakundeetara hedatuta (Espainian NUTS3 mailako erakundeak, metropoliak eta departamenduak), Pirinioetako euroeskualdeak kontuan hartuta, baita alde frantsesean Commissariat de Massif Pyrénées ere, NUTS1 mailako ordezkari gisa. Era berean, kontsulta-sisteman txertatu ziren Europako Batzordea (DG REGIO eta Makroeskualdeak) eta Alpeetako makroeskualdearen ordezkari bat.

PLEaren antolamendu-egitura

Egitura aztertzeaz gain, konparatu ere egin zen lurraldean dauden Mugaz haraindiko Lankidetzarako Europako Taldeekin. Era berean, Partzuergoa MLET bihurtzeak izango lituzkeen abantailen eta desabantailen analisi juridiko labur bat egin zen, agirietan jasotako betekizunen arabera.

AMIA matrize berria

Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak (AMIA) biltzen dituen matrizea egin da, hurrengo etapak bertan oinarrituta eraikitzeko abiapuntu gisa.

ETAPA 2: Gako diren erronka tematikoak identifikatzea

Inguruan gako diren eragileekin egindako kontsulta-fasean, lurraldearen intereseko diren gaietara lotuta jasotako erantzunei lehentasuna emateko eta sailkatzeko eskatu zen. Oinarri horren gainean, erantzunak haztatu ziren, interesik handiena eragin duten gaien hierarkizazioa egite aldera.

Emaitza hori oinarri hartuta, Batzorde Betearazleak erronka estrategikoen zerrenda zehatza hautatu ahal izan zuen 2017ko ekaineko bileran. Lanerako oinarri hori Batzorde Zientifikoak 2017ko uztailean egindako bilkuran eztabaidatu eta findu zen.

Ondoren, eta azterketa horren emaitza gisa, PLEaren Batzorde Betearazleak erabaki zuen

Pirinioetako Estrategia hurrengo atalean zehaztuta dauden ardatzetan oinarritzea.

ETAPA 3: Zazpi urterako ardatz estrategikoak hautatzea

Estrategia eraikitzeko, AMIA analisian identifikatutako erronkak hartu dira oinarri (diagnostikoa eta egindako elkarrizketak). Ikuspegi estrategikoaren oinarria, hortaz, indarguneak sendotzea eta ahuleziak zuzentzea izan zen.

Batzorde Zientifikoak adoste- eta kontsulta-fasean egindako trukeetatik eta ekarpen metodologikoetatik ere elikatzen da ikuspegi estrategikoa. Zentzu horretan, erabat errespetatu da hausnarketa-aldian balioztatutako garapenaren ardatz nagusien banaketa-logika.

Era berean, beharrezkoa da bereiztea, alde batetik, ardatz estrategikoetatik sortzen diren alderdiak (lurralde-ikuspegia) eta, bestetik, PLEaren xedeen antolamendu berria dakarten alderdiak (antolamendu-ikuspegia eta zeharkako ikuspegia). Ikuspegi biak era bateratuan tratatu behar badira ere, horietako bakoitzak maila ezberdineko azterketa eskatzen du.

Proposatutako estrategia hiru ardatz estrategikoren eta zeharkako ardatz baten inguruan artikulatuta dago.

1. Klimaren alde ekitea
2. Ekimenak sustatzea eta lurraldearen erakargarritasuna indartzea
3. Mugikortasuna, konektibitatea eta irisgarritasuna
4. Gobernantza, kapitalizazioa eta komunikazioa

ETAPA 4: Ekintza-plana egitea

Estrategiaren denbora-muga kontuan hartuta, zazpi urtean finkatutakoa, lehenetasuna eman zaie denbora-tarte horretan egin daitezkeen ekintzei, horrek epe ertain edo luzerako aurreikuspenei oztoporik eragin diezaien saihestuta.

Ekintza-planak orientazio pragmatikoa du eta ekintzen kopurua murriztu egin da, berariaz, PLEko

kideek lana Estrategiaren epearen barruan egin dezaten ahalbidetzearren. Edukiak, finantzaketa-iturri potentzialak, espero diren emaitzak, eta abar zehatzago definitu aurretik, ekintza bakoitza Batzorde Betearazleko kideen ordezkariekin adostu da.

Honako hauek izan dira ekintza nagusien irismena zehazteko kontuan hartutako printzipio gidariak:

1. Egungo ekintzekiko osagarritasuna
2. Lurraldearekiko egokitzapena (ekintzen lurralde-egokitasuna)
3. Gai zehatzei egokitutako gobernantza

Identifikatutako finantzaketa-iturriek nolabaiteko finantza-mobilizazioari aurre egiteko aukera ematen dute. Proposatutako ekintza batzuek irismen mugatua dute, zerikusi handiagoa dute koordinazio-eta adoste-ekintzekin, eta beren dimentsioaren ondorioz ez lirateke egokiak izango Europako finantzaketa-esparru klasikoetan kokatzeko (POCTEFAn, adibidez); bai, ordea, «proiektu txikien» kategorია berri bat ezarriko balitz, Europako beste muga-eremu batzuetan dagoen bezala.

Europako Batzordeak «proiektu txikiak» babesten jarraitzen badu 11. helburuaren bitartez edo bestelako esku-hartze eremuen bitartez (enplegua, prestakuntza, gizarte-berrikuntza...), komenigarria izango litzateke zehaztasun handiagoz aztertzea mota honetako proiektuei ezarri beharreko betekizun eta muga bereziak.

Europar Batasuneko makroeskualdeetako estrategiak, inspirazio-iturri

Oroigarri gisa, «makroeskualdeko estrategia» bat Europako Kontseiluak onartutako esparru integratua da. Estatu kideen eta, hala badagokio, kanpoko herrialdeen esparruan, eremu geografiko mugatu batek dituen erronka komunak jorrazteko aukera ematen du, baita lankidetzari etekina ateratzeko aukera ere, kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoari buruzko politikek arrakasta izan dezaten. EIE Funtsen babesa jaso dezake. Egun ezarritako lau estrategiek sektore, maila eta nazio anitzeko gobernantzarako plataformabat eskaintzen dute, beste herrialde batzuei irekita. Egiteko garrantzitsua izan dezakete, herrialdeei Europar

Batasunarekin batera aurrera egiten laguntzeko eta Europar Batasunaren kanpo-mugetan eragin litezkeen ondorio negatiboak arintzeko.

«Makroeskualde» nozioa ageri da PLEaren eta Kataluniako Generalitatearen 2005eko txostenean. «Pirinioen etorkizuna Europako testuinguruan» izenburua duen txosten horretan, lurraldeko eskala geografikoaren eta, ondorioz, perimetroaren gaia planteatzen da -lanaren terminologia bera erabilita-etorkizuneko «PLEarentzako Plan Estrategikoaren» oinarri gisa.

Nahiz eta PLEaren lurraldeak ez duen formalki makroeskualde-dinamika batean nahasteko beharrik, estrategia hauetako puntu asko har ditzake oinarri gisa, besteak beste hauek:

- Ezarritako ardatz estrategikoetan eskumeneko administrazioen zuzendaritza sektorialak aktiboki inplikatzea.
- Lurraldeko eta gizarte zibileko beste lurralde-eragile batzuk eztabaida-plataformen esparrura biltzea.
- Hainbat kideren esperientziak hobeto kapitalizatzea eta jardunbide egokiak berrerabil daitezenez erraztea, «Learning region» delakoaren logikan barne hartzeko.
- Gaitasun handiagoari etekina ateratzea eta erkidego mailan lobby legegilearen ekintza bultzatzeko baliatzea.

Europako lurralde-ikuspegiaren ildo berrian sustatzen denarekin lerrokatuta «lurralde-eremu integratua» planteatzea litzateke ideia.

DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA

3



DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA

3.1. Aztertutako dokumentuak

Estrategia lantzeko lehenengo fasean, bibliografian jasota dauden dokumentu eta informazioak bildu eta aztertu ziren. Arreta berezia eskaini zaie eremu hautagarriaren diagnostikoei -ikuspegi ezberdinak kontuan hartuta- eta aurretik dauden gidalerro estrategikoei, hala eskualde mailakoei nola MLETen gidalerroei edo NUTS3 mailakoei. Bibliografia zabal horretatik abiatuta, mugaz haraindiko erronka estrategikoak egituratu dira. PLEarentzako ikuspegi estrategiko globala eraiki da, AMIA analisi bat oinarri hartuta. Analisi horretan strategiaren eraikuntzan baliatutako gidalerro nagusiak eta printzipio gidariak biltzen dira.

3.2. Diagnostikotik eta Batzorde Zientifikoarekiko elkarrizketetatik eratorritako erronka nagusiak

AMIA matritzetik sortzen diren erronkak identifikatzetik eraiki da proposatutako estrategia. Ikuspegi estrategikoaren printzipio orokor horiei jarraiki, lanaren helburu nagusia izan zen indarguneak sendotzea eta ahuleziak konpentsatzea. Ardatz estrategikoak eta horien ekintzak eraikitzeko, printzipio bi horiek baliatu dira, diagnostikoaren aurretiko lanarekin eta mugaz haraindiko garapen-erronkekin lerrokatuta.

Ikuspegi estrategiko hau, era berean, trukeetatik eta Batzorde Zientifikoarekiko eztabaidetatik ere elikatzen da. Lan hori egiteko, oso kontuan izan dira Batzorde Zientifikoaren gomendioak eta aholkuak, horiei esker nabarmen aberastu ahal izan baita Estrategia. Batzorde Betearazleak proposatutako

ardatz estrategikoak Batzorde Zientifikoak baliozkotu eta zehaztu zituen.

Ikuspegi praktiko batean oinarrituta, PLEaren bide-orria betetzeko ezinbestekoa da programatutako ekintzak aurreikusitako zazpi urteko aldira egokitzea (2018-2024). Strategiaren epe hori errespetatuta, ikuspegi pragmatikotik ekintza-plana osatzen duten zenbait garapen-ekintza eskaini eta alderatu nahi izan dira.

Arrazoibidea argitze aldera, AMIA analisiaren elementu nagusiak -hiru ardatz estrategikoak definitzen dituztenak- sintetizatuta ageri dira jarraian jasota dauden koadroetan. Era berean, analisi honen garapenerako oinarri gisa balio izan duten gako-elementuen taulak ere ageri dira, arrazoibidearen zein ikuspegi estrategikoaren ildo nagusi gisa.

1. ARDATZA: KLIMAREN ALDE EKITEA

ERRONKAK	INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULEZIAK/MEHATXUAK
Definits a partir del diagnòstic i del treball de camp	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen arloko baliabideen aniztasuna (biodibertsitatearen aberastasuna, lurralde ziurtatuak, Parke Nazionalak eta Eskualde-parkeak, UNESCO guneak, baliabide natural oparoak, hegoaldeko Europako ur-gordailua, kostalde/mendialdearen osagarritasuna, Pirinioen irudia). • KAPBaren gaien araberrako zeharkako antolamendua (esperientzia berritzaile bat, klima-aldaketak ingurumen-baliabideetan eta jarduera ekonomikoetan dituen ondorioetan oinarritutako ikuspegitik). • Nekazaritzako kalitatezko elikagaien ekoizpena, biomasaren kudeaketa egokian oinarrituta (artzaintza, basoen kudeaketa, sute-arriskuak, ...). 	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide naturalek klima-aldaketarekiko duten sentikortasuna (artzaintza-eremuak, basoen aprobetxamendua, ura-elektzitate, elurra-turismoa). • Lurralde- antolamendua ez da kontuan hartu ingurumenaren arloko erronketan (mendialdeko higiezin/jabetzaren alderdia kontuan hartzea) • Ingurumenaren arloko baliabideen mantentze ezaren ondorioz lurralde-desberdintasunak areagotzeko arriskua (artzaintza-eremuen mantentzea, ingurumenaren gaineko presioa, sute-arriskuak areagotzea ...) • Nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren beherakada. • Turismoa garatzeko, ezinbestekoa da ingurumen-hezkuntza.

2. ARDATZA: EKIMENAK SUSTATZEA ETA LURRALDEAREN ERAKARGARRITASUNA INDARTZEA

ERRONKAK	INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULEZIAK/MEHATXUAK
Diagnostikoan eta landa-lanean oinarrituta definitu dira	<ul style="list-style-type: none"> • Pirinioetako kultura-aniztasunaren dimentsioa (egin beharreko egokitzapenetan garrantzitsuak dira hizkuntzak, ondarea, kalitatezko artisau-ekoizpena, nekazaritzako elikagaiak, ikuspegi klimatikoa...). • Pirinioetako ondare-aberastasunaren garrantzia. • Ogibide espezifikoaren eta giza baliabideen aniztasun eta aberastasuna (Pirinioetako ingurumenaren balioa azpimarratzea eta mugaz haraindiko turismoaren nazioartekotzea). Lanbide berriak garatzeko eredu bat sortzen lagunduko luke. • Piriniotar identitate sendoa. • Bizi-kalitate hobea. • Hezkuntza-trukeen garapena, batez ere lanbide-heziketaren arloan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Dinamika geografikoen ahuleziak (garapen eta ekoizpen-gaitasunaren eta eskualde eta metropolietako dinamika sendoen arteko aldeak). • Biztanleriaren atzeraldi nabarmena, baita herrien abandonua ere (bereziki Aragoiko Pirinioetan). • Pirinio-guneen artean erakartze-gaitasun desorekatua: garapen-elementuek beharrezkoa dute koordinazioa mugaz haraindiko inguruetan. • Pirinioen identitate-markarik eza. • Mugaz haraindiko kooperatiben eredu ekonomikorik eza. • Soldaten arteko alde handiak.

3. ARDATZA: MUGIKORTASUNA, KONEKTIBITATEA ETA IRISGARRITASUNA

ERRONKAK	INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULEZIAK/MEHATXUAK
<p>Diagnostikoan eta landa-lanean oinarrituta definitu dira</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza agentziak Pirinioetako irisgarritasunean inplikatzea, mugaz haraindiko dimentsioan halakorik egiteko dago, batez ere Espainian, eredu frantsesa delako. • Frantziako eskualdeen fusioa, Espainiako autonomia-erkidegoekiko hurbilketa (Pirinioekiko, aireportuekiko, trenbideekiko loturetan metropolien rola nabarmentzea). • Mugaz haraindiko ibilbide turistikoa berri eta historikoen garapena (adibidez, MLET proiektua, HPHP...). • Europako salgaien trafiko-korridoreetarako aukera interesgarriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pirinioetarako irisgarritasun eskasa garraiobide komun bitartez, eta garapen jasangarria gelditzea (stock hausturak, gutxi egokitutako ordutegiak ...). • Lurraldeko desberdintasunak areagotzeko arriskua erakartze-gaitasun desorekatuen ondorioz (Pirinioetarako irisgarritasun arazoak eta trenbide edo errepede bidezko mugaz haraindiko fluxuen birbanaketa). • Pirinioetako antolamenduan hiri-bilbea kontuan ez hartzea (Pirinioetako mugikortasun- eta irisgarritasun-bideen inguruan hausnartzea, trenbidea erabiltzea, metropoliekiko harremana, berrikuntza, enplegu-sorguneen osagarritasuna...). • Pirinioetan konektibitate digital eskasa (lineako erreserba, aplikazio digitala ondarearen balioa azpimarratzeko, errealitate areagotzaren erabilera ...). • Pirinioetako erdigunea isolatzeko arriskua, mugaz haraindiko hiri-bilberik ezaren eta trenbide-lotura egituratzailerik ezaren ondorioz: Pirinioetako trenbide-sistemaren etorkizuna aztertzea: Toulouse-Bartzelona, Pau-Canfranc, Cerdanyako tren horia, Bielsa-Aragnoet tartearen egokitzapena eta mantentzea,... • Enplegua, enpresa berrien garapena edo ibilgailua partekatze mugaz haraindiko ekimenak sustatzera bideratutako teknologia berrien garapen urria.

Z ZEHARKAKO ARDATZA: GOBERNANTZA, KAPITALIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

ERRONKAK	INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULEZIAK/MEHATXUAK
<p>Diagnostikoan eta landa-lanean oinarrituta definitu dira</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Europako sareen kudeaketaz eta antolamenduz arduratzen den agintaritzaren gisa jardutea (POCTEFA, posizionamendu estrategikoa, garapen-eragilea, programazioaren/planifikazioaren ardura...). • Pirinioetako perimetroa, perimetro estrategikoa gisa baliozkotua. • Mugaz haraindiko historia aberatsa lurraldeen artean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pirinioetako eskalan estrategia globalik eza (lurraldeen behatokitik eza, mugaz haraindiko garapenak zatikatzeko arriskua,...). • Lankidetzaren proiektuen kapitalizazio estrategikoa ahula (kudeaketa administratibotik harago joatea eta informazio estrategikoa eskuratzea...). • Pirinioen irudi global ahula (mugaz haraindiko eskalan planteatu ez den komunikazioa, «Pirinioak» markaren gaineko interesa,...). • Baliabide estrategikoetarako Zentririk eza, Pirinioetan garatzen diren erroka eta politikaren lidergoa bultzatzen laguntzeko.

2018-2024 ALDIRAKO EKINTZA
PLAN ESTRATEGIKOA

4



2018-2024 ALDIRAKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2024 aldirako Ekintza-plan estrategikoa hiru ardatz nagusiren eta zeharkako ardatz baten inguruan artikulatuta dago. Horietako bakoitzean, tresna estrategiko bat sortu da, PLEaren organoen esparruan ezar dadin errazteko. Orientazio pragmatiko eta operatiboa du ekintza-plan honek, eta haren ekintza kopuru murriztuak aukera ematen die PLEko kideei Estrategiaren epe barruan lan egiteko. Hau da, lehentasuna bizpahiru ekintzari eman beharko litzaieke, eta horietan zentratu beharko litzateke.

2018-2024 aldirako Ekintza-plan estrategikoa hiru jarduera-esparru nagusiren inguruan artikulatuta dago:

1. PLEaren proiektu enblematiko edo flagship bat edo bi.
2. Lankidetzeta-proiektu txikiak garatu edo sustatzea, hala POCTEFaren esparruan nola programa berrien baitan.
3. Europa mailan lobby gisa jardutea, baita mugaz haraindiko lankidetzaren erreferente gisa ere, proiektu berriak sustatuz eta jardunbide egoki propioak kapitalizatuz.

Lan-eremu horiek 2. ardatzean (Estrategiaren ardatz egituratzailean) bultzatuko dira, PLEaren Zuzendaritzak gainbegiratuta.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA.- KLIMAREN ALDE EKITEA

ITresna: KAPB

Ardatz honetan jaso behar da KAPBak proposatutako estrategia, eta harekin koherentea izan behar du, pixkanaka hedatuz.

KAPBaren xedea

Klima-aldaketa gaietan erreferentziazko plataforma izatea, erabakiak hartzeko unean eragina izateko, betiere zientzia-arloaren, sektore sozioekonomikoen eta administrazio publikoen arteko lotura gisa jardunez.

1 helburua:

Pirinioetan klima-aldaketaren gaineko ezagutzak hobetzea: oinarri klimatikoak, urrakortasunak, natura- eta giza sistemetan diren eraginak eta arriskuak (ekosistema sentikorak, basoak, biodibertsitatea, baliabide hidrikoak, arrisku naturalak eta azpiegiturak, turismoa, nekazaritza eta artzaintza, energia, biztanleria eta osasuna).

2 helburua:

Berrikuntza sustatzea, klima-aldaketari lotutako gaietarako ekintza zehatzen bitartez, emaitza arrakastatsuen kapitalizazioa abiapuntu hartuta.

3 helburua:

KAPBaren lanen gomendioak eta emaitzak lotura-rola duten eragile sektorialeiei transferitzen zaizkiela

ziurtatzea, Pirinioen egokitzapen eta erresilientzia hobea ahalbidetze aldera.

4 helburua:

Klima-aldaketari buruzko gaietan Pirinioen ikusgarritasuna handitzea eta Europako zein nazioarteko sareetan parte hartzea.

5 helburua:

Behatokiaren lanen jarraitutasuna bermatzea, aurretik dauden gobernantza-egiturak finkatuta: KAPBaren Batzorde Teknikoa, Behatokiaren oinarritzko jarduera, KAPBaren web-plataforma eta geoataria, komunikazio- eta ordezkaritza-ekintza instituzionalak, besteak beste.

Ekintza operatiboak:

1.1.A Klimari, fenologiari, lurzorua erabilerari eta lurraldearen egokitzapenarekin lotutako bestelako informazioei (azpiegitura berdea, konektibitate ekologikoa) buruzko datuen bilketa hobetzeko gomendioak eskaintzea.

1.2.A Urrakortasunen, eraginen eta arriskuen analisia sustatzea, neurriak proposenak definitu ahal izateko.

1.3.A Gako diren eragileen informazio-beharrak ezagutzea.

1.4.A Pirinioetan klima-aldaketara egokitzeko edo/ eta hura arintzeko ekintza berritzaileak ezartzera bideratutako proiektuak sustatzea eta horietan parte hartzea, bereziki Pirinioetan gako diren sektore sozioekonomikoetan.

1.5.A Pirinioetan eta bestelako mendigune malkartsuetan klima-aldaketari buruzko jardunbide egokiak ezagutzea eta zabaltzea.

1.6.A Klima-aldaketa Pirinioetako Estrategiaren beste ardatz batzuetako jarduketetan zeharka txerta dadin sustatzea; adibidez, ekonomia zirkularra eta berrikuntza 2. ardatzean txertatzea.

1.7.A Identifikatutako beharretan oinarritutako

dibulgaziozko txosten edo argitalpenak egitea, lurraldeko eragileek ezagutza zientifikoa bere egin dezaten.

1.8.A Geoatariko eta informazio-atariko edukiak lurraldeko eragileei ezagutaraztea.

1.9.A Gako diren gaietako buruzko tailer parte-hartzaileak antolatzea.

1.10.A Zabalkunderako material grafikoak eta komunikazio-kanpainak sortzea, eragileei eta publiko osoari zuzenduta.

1.11.A PLEaren eremuan behatokiaren jardueraren eta proiektuen aurrerapenaren gaineko informazioa ematea, biztanleek eta eragileek haren berri izan dezaten. Ingurumen-hezkuntzari lotutako ekintzak jorratzea.

1.12.A Nazioarteko sare eta proiektuetan aktiboki parte hartzea, mendi-inguruko beste komunitate batzuekin batera. Ingurumenaren arloko hezkuntza- eta kudeaketa-sareak babestea eta haiekin lankidetzan aritzea.

1.13.A Gure jarduketekin lotura duten Europako eragile eta instituzioekin elkarrekiko interes-harremanak sortzea.

1.14.A KAPBaren ataria eskualdeetako erakundeetan, administrazioetan, nazioarteko sare eta ekimenen atariekin lotzea, baliozko informazioa ikusarazte aldera.

1.15.A Finantzaketa-iturriak dibertsifikatzea, KAPBak baliabide eta proiektu gehiago izateko (SUDOE, LIFE+, H2020, besteak beste).

Emaitzak

1. ardatzaren eta KAPBaren helburuak bat etortzea
2. KAPBaren garapen progresiboan aurrerapenak egitea
3. Emaitzen zabalkundea hobetzea
4. Biztanleengan eragin handiena duten eremuak behar bezala analizatzea

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA.- EKIMENAK SUSTATZEA ETA LURRALDEAREN ERAKARGARRITASUNA INDARTZEA

Tresna: PLEko Garapen eta Dinamizazio Unitatea (GDU)

1 helburua:

POCTEFA esparruan eta bestelako programetan identifikatutako proiektuen bitartez arrakastareduak errepikatzea, eta lurraldeei jardunbide egokien berri ematea arlo hauetan: turismoa, nekazaritzako elikagaiak, ekonomia zirkularra, berrikuntza, aniztasuna eta inklusioa, ondare kultural, natural eta linguistikoa, hurbileko zerbitzuak eta segurtasuna (babes zibila).

2 helburua:

Urte Anitzeko Finantza Esparruko finantzaketa-iturri berriak eskuratzea, kohesio-politikatik kanpo.

Ekintza operatiboa:

2.1.A PLEko Garapen eta Dinamizazio Unitatea (GDU) abiaraztea.

2.2.A PLE Gaztea sortzea, gazteei lotutako ekintzak burutzera bideratuta -GDUren baitan-. Mugaz haraindiko lan zein hezkuntza arloko mugikortasunari lehentasuna ematea, ezagutzaren edo arauen harmonizatzearen bitartez; eragileak, zerbitzuak eta profesionalak erakartzea eta horien arteko koordinazioa (gazteria-zerbitzuak) eta jarduera zein ekimenak sustatzea.

2.3.A PLE Zientifikoa sortzea Biozientzia, Biosasun eta Energia arloetan -GDUren baitan-, ekoizpen-sarea espezializazio adimendunaren estrategiekin konektatuta.

2.4.A Emakumeen presentzia handiagoa finkatuko duten estrategiak jorratzea, landa-eremuetako

familiarteko negozioetan ekintzaitza ikusezina gisako fenomenoak saihestuta.

2.5.A GDU unitatearen bitartez, lurraldearen egungo erakartze-gaitasuna hobetuko dituzten lankidetzak proposatzea, garapen lokal eta ekonomikoan oinarrituta. Horretarako, benchmarking lanak egin beharko dira, lurraldetik kanpo -baita POCTEFA proiektuen testuinguruan ere- antzeko egoeretan izan diren esperientziak bilatu eta aztertze. Gainera, ikasitakoa Ulysses proiektuan jaso beharko da, politiken ezarpena eta iraunkortasuna bermatuko dituzten jarduerak diseinatze aldera.

2.6.A Enplegu-iturri berriak identifikatzea, etorkizunean mendialdean eta itsasbazterrean garatuko diren lanbideak identifikatzea, mugaz haraindiko lan-eskaintzen sarea sortzea, lanen urtarokotasun-ezari aurre egiteko. Lanbide berriak garatzeko eredu bat sortzea (ikus AMIA).

2.7.A Mugaz haraindiko hirien sareko konexioa areagotzea, mendiguneko turismo-fluxuak birbanatzerako orduan bereziki horien erakargarritasuna eta erantzukizuna azpimarratuta.

2.8.A Lurraldean eta lurralderako sortutako sormen eta berrikuntza sozialari lotutako gaietan mugaz haraindiko lankidetzak indartzea (esate baterako, industria kultural eta sortzaileetan; natura- eta kultura-ondareen balioa azpimarratzeko jarduketa bateratuak, ondare immateriala barne hartuta), hizkuntza-aniztasunari eta turismo jasangarriari lotutako lankidetzak sustatzea, eta tokiko produktuen kontsumoa eta ekonomia zirkularra bultzatzea, betiere mendia eta itsasoa elkartuta.

2.9.A Pirinioen irudi bateratua islatuko duen marka sortzea, lurraldearen identitatea eta ezaugarriak nabarmenduta.

2.10.A Lankidetzak proiektu berriak abiaraztea, POCTEFAren eta Pirinioetako dinamizazio-tresna berrien kudeaketaren bitartez (lankidetzak proiektu txikien bidez, adibidez).

Emaitzak:

1. Estrategiari koherentzia eta egitura ematea.
2. Gainerako ardatzetan aurreikusitako ekintza operatiboen efizientzia eta osagarritasuna areagotzea.
3. Mugaz haraindiko lankidetzaproiektuak garatzea, lurraldeko zein tokiko eragileen -lankidetzaproiektu txikien- benetako eskariei egokituta.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA.- MUGIKORTASUNA, KONEKTIBITATEA ETA IRISGARRITASUNA

Tresna: Azpiegitura, garraio eta komunikazioen lantaldea.

1 helburua:

Azpiegitura, garraio eta komunikazio Batzordeen lana berrabiaraztea, PLEa POCTEFaren Kudeaketa-agintaritza bilakatu aurretik bezalaxe; konexio digital zein energetikoak eta mugikortasun motela edo slow mobility delakoa integratuta.

Ekintza operatiboak:

3.1.A Pirinioetako garraio-azpiegitura lineal eta nodalen erregistro eguneratua egitea; Pirinioez haraindiko lurreko garraio kolektiboko zerbitzuak eskaintzea. Jarduera ekonomikoa eta giza jarduera ahalbidetzen duten pertsonen eta salgaien fluxuen gaineko ezagutza hobetzea.

3.2.A Komunikazio- eta telekomunikazio-azpiegituren aldetik epe labur, ertain eta luzera egon daitezkeen beharrak aztertzea -konektibitate mugikor eta hari-gabea barne-, Pirinioetako herritarren interesak interes ekonomikoen gainetik daudela bermatuz.

3.3.A Zerbitzuetara iristeko zailtasunak dituzten osasun-azpiegiturak eta babes zibileko azpiegiturak

aztertzea; mugaz haraindiko lankidetzarekin gako diren erronkak identifikatzea, zeinak zerbitzu komunak hurbiltzearekin lotuta dauden neurri handi batean.

3.4.A Pirinioetako toki-eragileen artean garapen ekonomikoa eta turistikoa bultzatzeko palanka gisa funtzionatzen duten mugaz haraindiko azpiegiturak planifikatzea eta, hala badagokio, gauzatzea; baldin eta Europa Konektatu Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren proposamenari lotuta badaude, zeinak 1316/2013(EB) eta 283/2014 (EB) Erregelamenduak indargabetzen dituen.

3.5.A PLEaren lurraldea osatzen duten estatu eta konexio energetikoak (elektrikoak eta gasistak) hobetuko dituzten mugaz haraindiko proiektu europarrak sustatzeko aukera aztertzea.

3.6.A Trantsizio energetikoa jorratzen duten ekintzak ezartzeko aukera aztertzea.

3.7.A 2018-2019 aldiaren zehaztutako Pirinioetako konektibitate-beharrak ebaluatzea.

3.8.A Lurraldeen arteko mugikortasuna errazteko, administrazioen artean akordioak egin daitezkeen sustatzea.

Emaitzak:

1. Lurraldeen arteko konektibitatea, mugikortasuna eta irisgarritasuna lortzeko aukera eman duten elkarriketa eta adostasuna lortzea.
2. Mugaz haraindiko lankidetzaren eremu guztietan komunikazio eraginkor eta operatiboa ahalbidetzea.

EIX ZEHARKAKO ARDATZA.- GOBERNANTZA, KAPITALIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Tresna: PLEaren lobbya

1 helburua:

PLE Europa-mailan lobby bilakatzea eta mugaz haraindiko lankidetzaren erreferente iraunkor gisa duen egitekoa sustatzea.

Ekintza operatiboak

1.1.ZA PLEa lobby bilakatzea, egitura behetik gora sortzen dela ziurtatuz.

1.2.ZA PLEaren ekintzen jarraitutasuna, koordinazioa eta gobernu-organoak sendotzea.

1.3.ZA Estrategiaren eta etorkizuneko 2021-2017 erkidegoko esparruaren arteko harremana aztertuko duen lantaldea sortzea, eta etorriko diren POCTEFA proiektuetan eskualdeen helburuak txertatzea.

1.4.ZA PLEaren gobernantza partaidetzaren bidez dinamizatzea.

1.5.ZA Funtsen azterketa, prospekzioa eta bilketa bideratzea (lehiakortasuna, lobbya eta finantzaketa-iturriak).

1.6.ZA Araudiaren eta administrazioaren aldetik dauden desberdintasunak sakonki aztertzea.

1.7.ZA Tartean nahasitako eragile instituzionalek Pirinioetako Estrategia onartzea.

1.8.ZA 2018-2024 aldirako PLEaren Komunikazio-plana egitea eta eguneratzea, PLEaren itzala eta errekonozimendua hobetze aldera.

1.9.ZA Jardunbide egokiak eta sustatutako proiektuen emaitzak ezagutaraztea.

1.10.ZA POCTEFA proiektuak eta Pirinioetako Estrategiaren beste proiektu batzuk kapitalizatzea, PLEaren ekimenen eta proiektuen sarea ezagunagoa bihurtzeko.

Emaitzak:

1. PLEaren lobbya Europako instituzioen artean ezagutzera ematea.
2. Europako Batzordeari Pirinioetako Estrategiari buruzko COM bat argitara dezan eskatzea.
3. Funtsak biltzea.
4. Lurraldeetako politika publikoak lantzean eragina izatea.
5. PLEaren ekimenak Europako dokumentuetan eta estrategietan presente egotea.



Klima Aldaketaren
Pirinioetako Behatokia



PLEren garapen eta
dinamizazio unitatea (UD2)



Azpiegitura, garraio eta
komunikazioen lantaldea

ARDATZA TRANSBERTSALA

GOBERNAMENDUA, KAPITALIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

CTP lobby

MONITORIZAZIONE E VALUTAZIONE

5



MONITORIZAZIOA ETA EBALUAZIOA

Atal honetan, 2018-2024 aldirako dokumentu estrategikoaren (Pirinioetako Estrategia) monitorizazio- eta ebaluazio-sistemaren deskribapenadator. Helburua ardatz estrategikoetan eta zeharkako ardatzean aurreikusitako emaitzen betetze-maila islatzea da, bertan aurreikusitako mugarri-sisteman eta atalean iradokitako adierazle osagarrietan oinarrituta.

Sistemak bi jarduera-bloke hauek ditu oinarrian:

- Monitorizazio- eta jarraipen-sistema
- Estrategiaren ebaluazio-sistema

Lehen blokeak ardatz estrategikoetan eta zeharkako ardatzean islatutako mugarriak biltzen ditu. Mugarri horiek funtsezkoak izango dira jarraipen- eta ebaluazio-prozesuetan, bai urteko jarraipen-txostenen bitartez egiten den jarraipen

etengabe, bai aldizkako jarraipenean: tarteko ebaluazioa aldiaren erdialdean egiten da; azken ebaluazioa, berriz, 2023-2024an, Estrategia bukatutzat ematean, emaitzen balantze modura.

5.1. Monitorizazio- eta jarraipen-sistema

Estrategiaren monitorizazio- eta jarraipen-sistema, funtsean, ardatz estrategikoen eta zeharkako ardatzaren **helburuetan eta garapenean gako diren etapetan** oinarritzen da. Etapa horiek ikuspegi metodologikoari buruzko II. atalean daude deskribatuta eta lortu nahi diren elementu nagusiak biltzen dituzte. Ez dira, hortaz, betetze-maila neurtzeko adierazleak, lortutako emaitzen berri ematen duten moduluak baizik. PLEaren lehendabiziko Estrategia global honetan (Pirinioetako Estrategia), sistema hau hobetsi



da; alde batetik, jarraipen-sistema sinplifikatzen duelako eta, bestetik, etapa eta emaitza nagusietan zentratzeko aukera ematen duelako.

Ardatz estrategikoei eta zeharkako ardatzari buruzko informazioa biltzeaz gain, kudeaketa-adierazle orokorren sorta txikia diseinatu da, haren garapen globala neurtzeko eta tarteko zein azken ebaluazioen prozesuak errazteko. Adierazle horiek lortu beharreko mugarrak dira, ardatz estrategikoak eta zeharkako ardatza bezalaxe.

Horretarako, estrategiak esparru logiko bat izango du, ardatz bakoitzean identifikatutako helburu nagusiak, proposamenak, aurreikusitako emaitzak eta adierazleak bilduko dituena. Esparru logiko hori, halaber, gida arin, malgu eta lagungarria izango da strategiaren bitartez lortu nahi den eragina irudikatzeko, eta lurralde sustatzaileen zein inizatibaren kudeatzaileen zerbitzura egongo da, kudeaketa hobetzeko aukera izan dezaten.

Urtero-urtero, PLEaren Zuzendaritzak Estrategiaren Urteko Jarraipen Txostena egingo

du. Bertan, honako alderdi hauek adieraziko ditu, besteak beste:

- Estrategiaren garapen-maila
- Tresna bakoitzaren bidez egindako lanen deskribapena
- Lortutako mugarrak
- Estrategia ezartzean sortutako gorabeherak
- Estrategian egindako aldaketak
- Hurrengo aldirako aurreikuspenak
- Tarteko Ebaluazioaren (2022) eta Azken Ebaluazioaren (2025) emaitzak

Urteko jarraipen-txostenak, deskribatzaileak izateaz gainera, tresna garrantzitsuak ere badira, gardentasunez erakusten dutelako Estrategia nola ari den ezartzen, eta lagungarriak direlako herritarrek hobeto uler dezaten zehazki zer jardura biltzen diren Estrategian eta PLEan. Hori dela eta, arretaz zainduko da hura idazteko eta aurkezteko modua, Pirinioetako erakunde eta biztanle guztientzat erabilgarria izan dadin.

MONITORIZAZIOAREN MUGARRIA	EPEA
Batzorde Teknikoak eta Lantaldeak eratzea	T3 2020
Partaidetza-ekitaldiak antolatzea	T4 2020 T4 2021 T4 2022 T4 2023 T4 2024
Urteko jarraipen-txostenak aurkeztea	T1 2021 T1 2022 T1 2023 T1 2024
Tarteko Ebaluazioaren hasiera	T3 2022
Azken Ebaluazioaren hasiera	T1 2025

5.2. Ebaluazio-sistema

Etengabeko ebaluazio-sistemak, ardatzetako mugarren eta adierazleen jarraipen-sisteman oinarrituta, berrikusketak sakonki egiteko bi une planteatzen ditu. Bi une horiek finkatuta daude jada metodologian.

Lehendabizi, Estrategiaren aldiaren erdian (2022), **tarteko ebaluazioa** egingo da, hobekuntza operatiboak eskaintzeko eta, hala badagokio, hasieran planteatutako estrategia berrikusteko. Ebaluazioak aztertuko dituen oinarritzko alderdiak honako hauek izango dira:

- **Estrategiaren adierazgarritasuna eta egokitasuna:** abiarazte-diseinuaren eta inguru aldakorraren erronkei aurre egiteko gaitasuna aztertzea.
- **Iraunkortasuna eta koherentzia:** Estrategiaren jarduketan egokitasuna aztertzea, Pirinioetan planteatutako beste jarduketa batzuekin alderatuta (euroeskualdeak, MLET, Europako kohesio-politika etab.), ekintzen osagarritasuna, koordinazioa eta abarrak aztertzea.
- **Efikazia:** ekintzak behar bezala gauzatu direla aztertzea, hasierako aurreikuspenen arabera. Ardatz estrategikoen eta zeharkako ardatzaren mugariak funtsezkoak dira gai honi dagokionez. Arreta berezia eskainiko zaio proposatutako ekintzen eraginak, aurreikusitako eraginak eta ustekabeak azaltzeari, baita helburuekiko desbideraketari ere.
- **Efizientzia:** erabilitako baliabideen arabera neurtuko da. Arreta berezia eskainiko zaio hasieran potentzial gisa planteatutako baliabideen osagarri izango direnak sortzeko gaitasunari.

- **Lurralde-eragileen inplikazioa** PLEaren ekintzen gaineko ezagutzan eta garapenean.

Bigarrenaz, **azken ebaluazioa** egingo da, aurreikuspenen arabera, Estrategiaren aldiaren bukaeran (2025). Ebaluazio honetan ere tarteko ebaluazioan jorratutako gai berberak aztertu ahal izango dira, baina strategiaren hurrengo aldiaren hobetu beharreko proposamenak egite aldera. Arreta berezia eskainiko zaie ikasitako lezioei eta emaitzen kapitalizazioari. Atal honetan, funtsezkoa izango da Azpiegitura, Garraio eta Komunikazioen Lantaldearen egitekoa. Azken ebaluazioaren helburu nagusiak hauek dira: Estrategiaren bidez lortutako emaitzak baloratzea, Estrategiaren irismena aztertzea eta etorkizunean indartu, aldatu edo murriztu beharreko elementuak identifikatzea. Emaitzak ardatz estrategikoetan eta zeharkako ardatzean zentratu beharko dira, baita strategiaren sortze-fasetik edo tarteko ebaluazioa egin denetik sortu diren balizko aldaketa adierazgarrietan ere. Onartutako ekintzen bideragarritasuna eta iraunkortasuna ere aztertuko ditu azken ebaluazioak. Jarduketan zer ondoriok irauten duen antzematea da gakoa, eta iraupen horren zergatiak identifikatzea.

Ebaluazio mota bietan (tartekoa eta amaierakoa) tresna kualitatiboak (kontsultak, interes-taldeak eta galdetegiak, adibidez) eta kuantitatiboak erabiliko dira.

ERANSKINAK

6



ERANSKINAK

ERANSKINA: Partaidetza-prozesuaren I. fasearen ondorioak

fasean bidalitako inkestaren 52 galderen erantzunak aztertu ondoren, esan dezakegu jasotako erantzunen lagina adierazgarria dela, POCTEFA 2014-2020 proiektuaren onuradun guztiei dagokienez. Gainera, ardatzen arabera banaketa bat dator POCTEFAn berezko banaketarekin.

Nahiz eta Pirinioetako Estrategiak onuradun gehiago izango dituen POCTEFAk baino, mugaz haraindiko lankidetzaren proiektuetan aditu diren neurrian, biztanle guztiz aproposak dira, haien bidez Estrategia honen alderdi positibo eta negatibo asko baloratzeko.

Horrela, eskuratutako emaitzak oinarri hartuta, I. faseko txostenak Pirinioetako Estrategiaren inguruko zenbait hipotesi edo helburu proposatzen ditu, baita aztertu eta ebatzi beharreko arazoen zerrenda bat ere.

Hipotesiak edo helburuak:

1. PLEak rol dinamizatzailea hartu behar du eta jardunbide egokien zein proiektuen arteko emaitzen kapitalizazioa bultzatu behar du

POCTEFA proiektuak transferigarriak dira, eta emaitzak kapitalizatzeko modukoak.

10 onuradunetik 9k baino gehiagok (% 94) uste dute beren proiektua gauzagarria litzatekeela beste eremu geografiko batzuetan ere. Inkestatik ateratako ondorio hori Pirinioetako Estrategiaren 2. ardatzaren helburu nagusietako bat ere bada: POCTEFAn eta bestelako erreferenteen bitartez, arrakasta duten ereduak errepikatzea, eta Pirinioetako Estrategiaren eremuko lurraldeei eta gainerako tresnei jardunbide egokien berri ematea.

Hau da, POCTEFA proiektuak errepikagarriak eta kapitalizatzeko modukoak badira, halakoak izango dira Pirinioetako Estrategiaren etorkizuneko proiektuak ere (POCTEFAn oinarritutakoak).

Bestalde, onuradunen % 90 ingururi (inkestako Q29, Q36 eta Q46) PLEaren bitartez beste proiektu batzuekin harremanetan jartzea gustatuko litzateke. Inkestak Pirinioetako Estrategiaren 1. 2. eta 3. ardatzei buruzko galdera sortetan planteatu zuen gai hori, sare bat sortzeko beharra gaiaren arabera premiazkoagoa zen jakiteko. Baiezta dezakegu proiektuek beren baliokideekiko harremana nahi eta behar dutela, haien lan-eremua edozein dela ere.

2. PLEak rol informatiboa hartu behar du, POCTEFAz gain dauden beste finantzaketa-iturrien berri emateko

Inkestari erantzun dioten onuradunen % 98k nahi lukete PLEak beste finantzaketa-programa batzuei buruzko informazioa ematea, finantzaketa-iturri berriak bilatzen ibili behar izaten baitute etengabe.

Onuradun gehienek dagoeneko ezagutzen dituzte beste programa batzuk; bereziki, nazioz haraindiko beste Interreg programa batzuk, POCTEFAk bezala EGEF funtsak dituztenak. Pirinioetako Estrategiaren 2. ardatzaren beste helburu nagusietako bat kohesio-politikatik kanpo Urte Anitzeko Finantza Esparruaren finantzaketa-iturri berriak eskuratzea da; hortaz, bat dator onuradunek Europako beste finantzaketa-programa batzuen gaineko informazio gehiago jasotzeko duten interesarekin.

3. PLEa lobby bilakatu behar da

10 onuradunetik ia 9k (% 88) uste dute PLEak lobby bihurtu behar duela, Europa mailako mugaz haraindiko lankidetzari dagokienez.

Onuradunen % 97k nahi lukete PLE solaskide garrantzitsuagoa izatea Europar Batasunaren mugaz haraindiko lankidetzarako aurrekontuak negoziatzeko (Q20), eta % 91k uste dute PLE lobby bilakatzea dela hori lortzeko bidea (Q21).

Horrela, PLEak eragin handiagoa lortuko luke Europako eremuetan, eta aukera izango luke finantzaketa-iturri berriak lortzeko (Pirinioetako Estrategiaren 2. ardatzaren funtsezko helburua), ekintzak ikusarazteko eta Europako Batzordeak Pirinioetako Estrategiari babesa ematea lortzeko.

«Zein da Pirinioetako Estrategiaren alderdirik positiboena?» galderak gehien jaso duen erantzuna hauxe izan da: PLEari zentzu estrategikoa ematea, lobby gisa jardutea eta etorkizuneko garapena hobetzea.

4. PLEaren ardatzetako tresnek informazioaren biltzaile eta dibulgatzaile gisa jardun behar dute, baita harremanetarako gune gisa ere

31. eta 32. galderetan (Pirinioetako Estrategiaren 1. ardatza), 37. eta 38. galderetan (Pirinioetako Estrategiaren 2. ardatza) eta 47. eta 48. galderetan (Pirinioetako Estrategiaren 3. ardatza), oso antzekoak izan dira ondorioak: onuradunek uste dute tresnek (KAPB, GDU eta Azpiegitura, Garraio eta Komunikazioen Lantaldea) informazio-puntu gisa jardun behar dutela (informazioa bilduz eta zabalduz), baita harremanetarako puntu gisa ere.

«Zure ustez, zer eskain diezazuke tresna honek?» galderari emandako erantzuna «informazioa» izan da hiru ardatzetan. Izan datuak, emaitzak, esperientzia edo tresnen inguruko informazioa.

Era berean, «Zure ustez, zer ekarpen egin diezaioke zure proiektuak tresna honi?» galderaren aurrean, «informazioa» izan da erantzuna, hiru ardatzetan. Kasu honetan, «landako» informazioa; hau da, proiektu bakoitzak tresna honi eman liezazkiokeen datuak (bildu eta tratatzeko).

Ondoriozta dezakegu tresnen eta proiektuen artean mesede-zirkulu moduko bat sortuko litzatekeela, alde guztientzat mesedegarria.

Era berean, informazioa jasotzeko beharraren ostean, harremanetarako beharra adierazi dute kasu guztietan. Proiektuek tresnen aldetik aholkularitza, bide-laguntza eta kontaktu berriak egiteko laguntza jasotzea espero dute, baina,aldi berean, beren kontaktu-sarea partekatzeke eskaintza ere egiten dute.

Arazoak:

1. Hobetu egin behar da Pirinioetako Estrategiaren komunikazioa

10 onuradunetik 6k bakarrik ezagutzen dute Pirinioetako Estrategia (% 64). Gainera, 10etik 5ek baino ez dute irakurri inkestarekin batera bidalitako dokumentazioa.

Hala eta guztiz ere, onuradun gehienek interes handia dute Pirinioetako Estrategian eta % 91k sakontasun handiagoz ezagutu nahi lukete, uste baitute oso mesedegarria izan daitekeela beren proiekturako, eta hazteko aukera ekar diezaikeela.

Horregatik, PLEak konpondu egin behar ditu Pirinioetako Estrategia ezagutarazteko dauzkan komunikazio-arazoak, irisgarriagoa izan dadin. Bestalde, kontuan izanik inkestatutakoen % 76k bideoa ikusi dutela –dokumentazioa, berriz, % 53k irakurri dute–, garbi geratzen da komunikazio-elementu irisgarriak lantzeko beharra dagoela.

2. Gai batzuk kanpoan uzten ditu Pirinioetako Estrategiak, eta zenbait alderdi ez ditu behar bezala zehazten

Onuradun gehienek uste dute Pirinioetako Estrategiaren edukia «ona» dela; «bikaina» ere bai, hainbaten iritzian. Baina analisi honen emaitzek agerian uzten dute onuradun batzuk haserre daudela, Estrategiak zenbait gai kanpoan uzten dituelako. Gai sozialak (gazteei eta osasunari lotutako gaiak, funtsean) sakontasun handiagoz jorratu behar zituela uste dute inkestatuek.

Halaber, zenbait erantzunek agerian utzi dute onuradunen kezka, Pirinioetako Estrategiak ez duelako oinarri legal nahikorik, edo ez dituelako berau osatzen duten hiru herrialdeak neurri berean ordezkatzeko.

3. Hobeto definitu behar dira 3. eta 4. ardatzak

Inkestatutako gehienek Pirinioetako Estrategiaren egitura positiboki baloratu badute ere, 1. eta 2. ardatzek gehiegizko ordezkariak dute onuradunen ustetan; ondorioz, askoz erantzun-indize baxuagoa dute 3. ardatzari (Mugikortasuna, konektibitatea eta irisgarritasuna) eta 4. ardatzari (Gobernantza, kapitalizazioa eta komunikazioa) buruzko galderek.

Kontuan izan Pirinioetako Estrategiaren konfigurazioa ez dela POCTEFArena bezalakoa, eta POCTEFA proiektuak Pirinioetako Estrategiaren 1. ardatzean (Ingurumena babestea eta klima-aldaketara egokitzea) eta 2. ardatzean (Ekimenak sustatzea eta lurraldearen erakargarritasuna indartzea) kokatzen direla batez ere, horiek egokitzen baitira ondoen 2014-2020 aldirako POCTEFA proiektuan jasotako gaietara. Pirinioetako Estrategiaren lau ardatzek askoz ere espekto zabalagoa dute, estrategiaren helburuetako bat ahalik eta eragile gehienengana iristea baita.

Kontuan hartzen bada, gainera, txosten honetan aipatutako erantzun batzuen arabera Pirinioetako Estrategiaren alderdirik positiboak 1. edo 2. ardatzak direla (baina ez 3. edo 4. ardatzak), are argiago geratzen da 3. eta 4. ardatzek zehaztapen eta arreta handiagoa eskatzen dutela, hain zuzen ere PLEak esperientzia txikiagoa duelako eremu horietan.

4. Jakako bulegoak ez dauka europar proiektu berrien kudeaketari aurre egiteko nahikoa baliabide

Pirinioetako Estrategia onartzeak proiektu berriak kudeatu beharra ekarriko luke. Onuradun asko gai honen inguruan zehaztu badira ere, eta erantzun askok positiboki baloratu duten arren Jakako bulegoko langileek egiten duten lana, emaitzek erakusten dute inkestatutako % 53ren iritzian Jakako bulegoak ez daukala nahikoa baliabide Europako proiektu berrien kudeaketari aurre egiteko, dela lan-bolumen handiagatik, dela behar baino giza baliabide gutxiago daukalako.

ERANSKINA: Partaidetza-prozesuaren II. fasearen ondorioak

Pirinioetako Estrategiaren kanpo-etaparen 2. faseak adituen jardunaldi bat izan zuen oinarri. 2018ko urriaren 23an eta 24an egin zen jardunaldia, Espacio Portalet MLEtean. PLEaren lurralde bakoitzak eta PLE Partzuergoak berak aditu batzuk aukeratu zituzten, haien ordezkari gisa jarduteko.

Lurraldeek Pirinioetako Estrategiaren indarguneei eta ahuleziei buruz zeukaten ikuspegi teknikoak ezagutzea izan zen saio horien helburua, ikuspegi horiek idatziz jasotzeko eta Pirinioetako Estrategiaren azken dokumentuan nabardurak egin ahal izateko.

Pirinioetako Estrategiaren helburuak

Pirinioetako Estrategiaren 2. fasean eztabaida eta analisisa egin ondoren, esan dezakegu helburu argi batzuk dituela Pirinioetako Estrategiak:

1. PLEak rol dinamizatzailea hartu behar du eta jardunbide egokien kapitalizazioa bultzatu behar du proiektuen artean, mugaz haraindiko lankidetzarako dauden ekimen mota guztiak kontuan hartuta, ez soilik POCTEFA. PLEko kideekin lankidetzak estuan arituz egin beharko du lan hori.
2. POCTEFAz gain dauden finantzaketa-iturriak buruzko rol informatiboa hartu beharko du PLEak, betiere lurraldeen arteko zeharkako ikuspegi batean oinarrituta. Horretarako, lurralde bakoitzaren berezitasunak izan beharko ditu kontuan, onuradun potentzialentzako babes teknikoan zentratu gabe, zeina PLEko kideen bulego teknikoek hartuko duten beren gain.
3. PLEa lobby bilakatu behar da. Horretarako, bokazio hori duen beste egiturarik badagoen egiaztatu beharko du, zer tresna juridiko beharko dituen aztertu beharko du, eta bere helburuak zein izango diren argi eta garbi zehaztu beharko du.
4. Pirinioetako Estrategiaren ardatzetako tresnak asmo handiko ikuspegiaren oinarrituta eraiki

behar dira, eta epe luzera begira. Proiektuak elkartzea izango da haren funtzioa eta, bigarren maila batean, ardatz horretan dibulgatzaile eta informazio-biltzaile gisa jardutea. Haien operatibitatea bermatu ostean ekin beharko zaio lanari, ez lehenago.

5. Pirinioetako Estrategiaren arazoak

Pirinioetako Estrategiaren 2. fasean eztabaida eta analisisa egin ondoren, hona hemen, lehentasun-hurrenkeraren arabera, strategiaren arazoei aurre egiteko konponbideak:

1. Hobetu egin behar da Pirinioetako Estrategiaren komunikazioa

Nº1 Pirinioetako Estrategiaren garapen osorako (2018-2024) komunikazio-plana sortzea

Nº2 Pirinioetako Estrategiaren dokumentua lantzeaz arduratuko den pertsona bat izendatzea, dokumentu hori erakargarriagoa eta ulergarriagoa bihurtzea

Nº3 PLEko kideekin parte-hartze dinamikak antolatzea

2. Gai batzuk kanpoan uzten ditu Pirinioetako Estrategiak, eta zenbait alderdi ez ditu behar bezala zehazten

Nº1 PLE ECBC ekimenaren solaskide bihurtzea

Nº2 Ardatzetan garatu beharreko gaiei lehentasuna ematea eta jardunbide egokiak kapitalizatzeko ekintzak lantzea

Nº3 1. ardatzean biodibertsitatearen tratamendua sartzea, klima-aldaketaren ikuspegian oinarrituta

3. Hobeto definitu behar dira 3. eta 4. ardatzak

Nº1 PLEaren lobby-rola indartzea

Nº2 2. faseko ondorioak 4. ardatza birdefinitzeko aprobetxatzea

Nº3 PLEa lurraldeen arteko elkargunea izatea; ez dadila behatzera mugatu, ekin ere egin dezala

4. Jakako bulegoak ez dauka proiektu berrien kudeaketari aurre egiteko nahikoa baliabide

Nº1 Lurraldeetako adituen esperientzia aprobetxatzea, PLEaren koordinaziopean
Nº2 PLEko langile taldea handitzea
Nº3 PLEaren helburua eta funtzioak zabaltzea

Estrategian egindako beste aldaketa batzuk

Horrela laburbil daitezke Pirinioetako Estrategiaren ardatzak osatzeko 2. fasean egindako parte-hartze saioak:

1 ardatza: Ingurumena babestea eta klima-aldaketara egokitzea

- A. Biodibertsitatearen tratamendua sartzeari, klima-aldaketaren ikuspegian oinarrituta.
- B. Herritarrek sentsibilizatzeko helburuak sartzeari. Ingurumen-hezkuntzari lotutako ekintzak antolatzea.
- C. Ingurumenaren arloko hezkuntza- eta kudeaketa-sareak babestea eta sendotzea.
- D. Ekonomia zirkularra sustatzea.
- E. Gaztelaniazko bertsioan, «trama urbana» kontzeptuaren ordez, «ordenación del territorio» erabiltzea.
- F. Gizakia-ingurumena harremanean oinarritutako ikuspegi integratzailea sartzeari.
- G. Ahal den neurrian, «babesa» terminoaren ordez «baliabideen erabilera arrazionala» erabiltzea.
- H. Arlo hauetan guztietan, PLE kapitalizazio-plataforma gisa posizionatzea, ez ekintza-plataforma gisa.

2 ardatza: Ekimenak sustatzea eta lurraldearen erakargarritasuna indartzea

- A. AMIA matrizean adierazitako «enplegu espezifikoen eta giza baliabideen beharra» puntua moldatzea, bertan lanbide berriak garatzeko eredia sartzeko.

- B. Turismoaren eta ondare-aberastasunaren eremuak argi eta garbi sartzeari.
- C. Herritarrentzako zerbitzuak garatzeari alde lan egitea.
- D. Hezkuntza-trukeak sustatzea.
- E. Lurraldearen marka propio bat sortzea..
- F. Ekintzaitzari buruzko proposamenak txertatzea.
- G. Dibertsifikazio ekonomikoaren plangintza egitea.
- H. Lurraldearen erakargarritasuna garatzeko politikak sartzeari.

3 ardatza: Mugikortasuna, konektibitatea eta irisgarritasuna

- A. «Mugaz haraindiko ibilbide turistikoak garatzeko» aukera zehaztea, igarobide historikoen kontzeptua baliatuta.
- B. Enplegua sustatzeko, enpresa berriak bultzatzeko eta garraioa hobetzeko (covoiturage) teknologia berrien garapena sartzeari.
- C. Lurraldeen arteko mugikortasuna bultzatzeko, administrazioen arteko akordioak egiteko lantaldeak sortzea.
- D. Konektibitate digitalari dagokionez, herritarren interesak interes ekonomikoen gainetik daudela bermatzea.
- E. Mugikortasun motelaren kontzeptua sartzeari.

4 ardatza: Gobernantza, kapitalizazioa eta komunikazioa

- A. Gobernantza-egitura behetik gora eraikitzen dela ziurtatzea.
- B. Komunikazio-ekintzetarako, PLEak Europako proiektuak kudeatzen duen esperientzia aprobetxatzea.

C. PLEan branding-a barne hartzea, markaren ospea hobetzeko.

D. Tartean nahasitako indar politikoez Pirinioetako Estrategia aho betean babesten dutela bermatzea.

E. Pirinioetako eragileek gobernantzaren, kapitalizazioaren eta komunikazioaren arloan duten rola argi eta garbi zehaztea.

F. Proiektu guztiak kapitalizatzen direla ziurtatzea, ez soilik POCTEFarenak.

haien helburu, PLEak Estrategia eraginkortasunez ezartzeko zer egin dezakeen jakiteko.

Bilera guztiek hiru ordu inguruko iraupena izan zuten eta formatu berberari erantzun zioten: hasieran, gaiaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta gero, jolas baten bidez, Pirinioetako Estrategia aurkeztu zuten. Jarraian, eztabaida moderatuari ekin zitzaion, lurralde guztietan gai berberak planteatuta.

III. ERANSKINA: Partaidetza-prozesuaren III. fasearen ondorioak

Pirinioetako Estrategiaren kanpo-etaparen 3. fasean, bilera instituzionalak egin ziren PLEaren eraginpeko lurralde guztietan. 2019ko martxoan, kide den lurralde bakoitzean bilera bana egin zen. Pirinioetako Estrategiaren jarraitutasuna bermatzearen haren ezarpenaren gaineko ideiak jasotze aldera, gomendioak jasotzea zuten bilera

2 ardatzean lehentasunez jorratu beharreko gaiak

PLEko kide diren zazpi lurraldeek izendatutako ordezkari instituzionalek aurrerantzean Pirinioetako Estrategia ezartzean kontuan izan beharreko zenbait alderdi planteatu zituzten.

Jarraian zerrendatuta daude, aipamen kopuruaren arabera, bilera horietan Pirinioetako Estrategiaren 2. ardatzean garatzeko proposatutako gaiak:

GAIA	ZENBAT BILERETAN AIPATU DUTEN
Ondare kulturala eta naturala sustatzea eta hedatzea Kulturartekotasuna	6
Berrikuntza modu transbertsalean garatzea	5
Mikroproiektuak sustatzea	5
Tokiko eragileen rola sustatzea (beren jarduerak koordinatzea, aukerak sortzea, etab.). Mikroproiektuekiko harremana	4
Hezkuntza eta prestakuntza sustatzea	3
Landa-eremuetako zahartzearen eta despopulatuaren arazoak jorratzea	3
Eleaniztasuna sustatzea	3
Jarduera ekonomikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea	2
Oztopo administratiboak ezabatzea (araudien arteko aldeak, irisgarritasuna)	2
Enplegua sustatzea	2
2. ardatzerako helburu komun bat ezartzea	2
Interes komunak identifikatzeko, RIS3 aprobetxatzea	2
Berrikuntza-ekintzak GJHein lotzea	1
Pirinioetako identitatea sendotzea (Pirinioetako marka)	1

Lankidetzak publiko-privatuak	1
Muga-eremuak positiboki diskriminatzea	1
Ekonomia dinamizatzeko metodo gisa, garapen industrialak sustatzea	1
Pirinioetako Estrategiaren ardatz guztietan garapen jasagarria txertatzea	1
2. ardatzean «segurtasun» kontzeptua definitzea	1
Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaiak sustatzea	1
2. ardatzaren metodologia birpentsatzea	1
Mikroproiektuak birpentsatzea, gai jakin batzuetara egokitzeko	1

Kontuan izan adierazitako ideia horietariko asko elkarri lotuta daudela; hortaz, modu askotara interpreta daitezke goiko sailkapena.

Esan daitezke, **PLEaren Idazkaritza Nagusiak proposatutako berrikuntzaren gaiak gehienek onartu** zutela, eta modu transbertsealean garatu behar dela adierazi zutela. Era berean, **ondare kulturala eta naturala garatzeko beharra**, nahiz eta ez dagoen 2. ardatzeko lehentasunen artean jasota, Pirinioetako Estrategiaren ardatz horretan garatu beharreko funtsezko gaia dela nabarmentzen da.

Osasun- eta gazteria- gaiak ez dira eztabaidatu, eta atzera bota ere ez dira egin, baina bileretan proposatutako gaiak zeharka jorratu dira, problematika hauen bitartez, besteak beste: zahartzea eta despopulazioa, enplegua, jarduera ekonomikoaren sustapena, oztopo administratiboak ezabatzea, etab. Ondoriozta daitezke, hortaz, bileretan gai bi horietarako proposatutako **ikuspegia zehaztu** egin dela.

Mikroproiektuei dagokienez, **aho batez egin da haien alde**, eta hirutan egin zaie erreferentzia, eragile berriekin -txikiagoekin, tokian tokikoekin- mugaz haraindiko lankidetzak bideratzeko aukera gisa. Aipagarria da gutxienez behin aipatu dela mikroproiektuak gai guztietarako egokiak diren edo ez zehaztu beharko litzatekeela.

PLEa lobby bilakatzea

Zazpi lurraldeek aho batez adierazi dute PLEaren lobby bat sortzeak abantailak ekarriko lituzkeela. PLEaren lobbyak katalizatzaile- eta kohesionatzaile-rola izatearen aldeko apustua egin dute bilera guztietan, baita lurraldean lehendik dauden beste instituzioekiko lotura gisa jardutearen aldeko apustua ere. Gainera, nabarmendu dute lehendik dauden mugaz haraindiko beste lankidetzaprograma batzuen osagarria izan behar duela Pirinioetako Estrategiak.

Pirinioetako «makroeskualede»-ren ideia

Oro har, lobby izatetik Pirinioetako makroeskualede izatera igarotzeko jauzia ez dute epe labur eta ertainera bideragarritzat jo; ez, behintzat, metodologiari eta kudeaketari dagokienez. Hortaz, esan daitezke Pirinioetako Estrategiaren kanpo-etaparen 3. faseko parte-hartzaileek proposatu dutela lehenik eta behin PLEaren lobby bat sortzea, eta etorkizunerako uztea makroeskualedeen estiloko kudeaketa-sistema bat ezartzeko aukera.

Beste proposamen batzuk

3. fasean egindako bilera guztietan, beste proposamen batzuk ere aurkeztu dira, planteatutako galderetatik harago. PLEaren Batzorde Betearazleak baloratu beharko du horiek garatzea egokia den eta, baietzkoan, noiz eta nola garatu behar diren.

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

- Lurralde-diagnostiko estrategikoa eta Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde-lankidetzari buruzko Programa Operatiboaren dokumentua (POCTEFA) 2014-2020. Lurralde-diagnostiko estrategikoa. 5. bertsioa, 2013ko urriaren 23koa. POCTEFA.
- Estratègia Nacional del Paisatge, 2011. Govern d'Andorra
- Kataluniako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboa.
- Aragoiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboa
- Nafarroako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboa
- Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboa
- Programme opérationnel FEDER-FSE Aquitaine 2014-2020
- Programme Opérationnel FEDER-FSE Midi-Pyrénées et Garonne 2014-2020
- Programme Opérationnel FEDER-FSE Languedoc-Roussillon 2014-2020
- Programme opérationnel interrégional FEDER Pyrénées 2014-2020
- Estrategia Aragonesa de Investigación e Innovación para una Especialización Inteligente (RIS3 Aragón), 2015. Aragoiko Gobernu
- Estrategia de investigación e innovación para la especialización inteligente de Cataluña (RIS3CAT). Kataluniako Generalitatea
- ZTBP Euskadi 2020, espezializazio adimendunaren estrategia. Eusko Jaurlaritza.
- Estrategia de especialización inteligente de La Rioja 2014-2020, 2015. Errioxako Gobernu.
- Nafarroako Garapen Ekonomikoaren Eredua Berria - Moderna Plana. Nafarroako Gobernu (gaur egun ez dago indarrean).
- Stratégie de spécialisation intelligente en Aquitaine S3 2014-2020, 2013. Région Aquitaine.
- Stratégie régionale de l'innovation pour une spécialisation intelligente en Midi-Pyrénées 2014/2020, 2013. Région Midi-Pyrénées.
- Stratégie régional d'innovation de spécialisation intelligente, 2014. Région Languedoc-Roussillon.
- Akitania-Euskadi Euroeskualdea MLETaren 2014-2020 aldirako Plan Estrategikoa. Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea.
- Pirinioak-Mediterraneo MLETaren 2009-2014 aldiko jardueren balantzea. Pirinioak-Mediterraneo Euroeskualdea.
- Pirinioetako Garapenaren Plan Estrategikoa, 2006. Nafarroako Lurralde Behatokia, Nafarroako Gobernu.
- Comité exécutif de la CTP – Atelier de réflexion interne. Rapport de conclusions. Andorra, 2014ko azaroa
- Etude sur la réalité des liens transfrontaliers entre la France, l'Espagne et l'Andorre; Synthèse – Préfecture de région Midi-Pyrénées – Octobre 2011
- Instruments juridiques au service de la coopération transfrontalière – MOT – Décembre 2013.
- «Les Pyrénées et l'Europe» : Pyrénées montagnes d'Europe – Actes du colloque de Jaca – juin 1989.
- «L'avenir des Pyrénées dans le contexte européen : Fondement d'une stratégie participative – Rapport

- 2005 – CTP – Généralité de Catalogne» – URBAN – Jordi BORJA eta Albert ARIAS
- Stratégie nationale du paysage – Gouvernement d'Andorre 2011
 - «Stratégie européenne pour la région alpine – (SUERA) Synthèse des contributions publiques lancées par la Commission européenne». EUSALP 2014.
 - Synthèse de la stratégie d'innovation de la Région Rhône-Alpes au regard de la «Spécialisation Intelligente», 2013. Région Rhône-Alpes.
 - Convention Interrégionale du Massif des Pyrénées 2015-2020.
 - Schéma interrégional d'aménagement et de développement du Massif des Pyrénées, 2013.
 - Galizia-Portugal iparraldea euroeskualdearen Inbertsio-plan Bateratua 2014-2020, 2014.
 - MLETen Estatutuak: Akitania-Euskadi-Nafarroa; Pirinioak-Mediterraneo; Pirinio Garaiak-Huesca-Pirinioak; Espacio Portalet, eta Pirinioetako Lan Elkarte Partzuergoa.
 - Bruselako Europako Kontseiluaren 2009ko urriaren 29ko eta 30eko ondorioak.
 - Europako Kontseiluaren 2013ko abenduaren 19ko eta 20ko ondorioak (EUCO 217/13).
 - SWD (2015) 147 azkena: Action Plan Accompanying the document «COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE COUNCIL, THE EUROPEAN ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS concerning the European Union Strategy for the Alpine Region» {COM (2015) 366 azkena}.
 - COM(2014)284 azkena «INFORME DE LA COMISIÓN AL PARLAMENTO EUROPEO, AL CONSEJO, AL COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO Y AL COMITÉ DE LAS REGIONES relativo a la gobernanza de las estrategias macrorregionales».
 - COM(2016)805 azkena «INFORME DE LA COMISIÓN AL PARLAMENTO EUROPEO, AL CONSEJO, AL COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO Y AL COMITÉ DE LAS REGIONES sobre la aplicación de las estrategias macrorregionales de la UE» {SWD (2016) 443 azkena}.
 - COM(2009)248 azkena «COMUNICACIÓN DE LA COMISIÓN AL PARLAMENTO EUROPEO, AL CONSEJO, AL COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO Y AL COMITÉ DE LAS REGIONES acerca de la Estrategia de la Unión Europea para la región del Mar Báltico».
 - Europako Eskualdeetako Lantaldea: COTER-VI/016 (121.^o Osoko Bilkura, 2017ko otsailaren 8 eta 9koa). IRIZPENA. «Mugako eskualdeetan garraio-loturen gabezia».
 - Mission opérationnelle transfrontalière (MOT): «Marco jurídico de la cooperación transfronteriza Instrumentos jurídicos al servicio de los proyectos transfronterizos», 2013.
 - Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa: «La cooperación transfronteriza realizada por las entidades territoriales españolas», 2016.
 - Mugaz haraindiko lankidetzarako hitzarmenak: Aragoi-Akitania; Aragoi-Midi-Pyrénées; Okzitania-Katalunia; Akitania-Nafarroa.
 - Pirinioetako Lan Elkarte eta Kataluniako Generalitatea: «El futuro de los Pirineos. Una Estrategia participativa», 2005eko iraila.
 - Pirinioetako Lan Elkarte: «Estrategia y Plan de Acción de la CTP en materia de Cooperación en Cambio Climático en los Pirineos: OPCC (Observatorio Pirenaico de Cambio Climático)», 2014.
 - Díez Verdejo, J.A. eta Pinazo Hernandis, J.: «La Eurorregión Pirineos-mediterráneo: una evaluación estratégica». Cuadernos constitucionales de la Cátedra Fadrique Furió Ceriol, 52. zk. 131.-153. or.
 - Janer Torrens, J.D.: «La participación de los entes regionales y locales españoles en las agrupaciones europeas de cooperación territorial». RGDC 35(2010), 117.-142. or.
 - López Toledano, M.A.: «El Acuerdo MOPU-DATAR: Ordenación y Cooperación Territorial en el Pirineo». Madrilgo Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Hirigintzari buruzko aldizkaria, 38.-44. or.

- Martín Mateo, R.: «El Consorcio como institución jurídica». Revista de Administración Pública, 129 zk. (1992).
- Martínez Pérez, E.J.: «Las Agrupaciones Europeas de cooperación territorial (Unión Europea) frente a las agrupaciones eurorregionales de cooperación (Consejo de Europa): ¿Competencia o complementariedad?», Revista de Estudios Europeos, 56 zk. (2010), 109.-126. or.
- Oliveras González, X: «La macrorregión del Mediterráneo Occidental». Aurkezpena.
- Sielker, Franziska: New approaches in European governance? Perspectives of stakeholders in the Danube macro-region, Regional Studies, Regional Science, 3:1, 88-95. 2016.
- Vara Arribas, Gracia: «AECT: situación actual y perspectivas en Europa. Estudio de casos prácticos». EIPAn egindako aurkezpena, 2014ko urriaren 28an.
- ESPON. Ulysses Proiektua. Pirinioetako kasuaren azterketa.
- ESPON. Europako lurralde-agertokiak.
- OTN. Mugaz haraindiko lankidetzari buruzko behaketa.
- Europar Batasunaren lehentasunak (14-20), Liburu Zuriaren agertokiak, lehentasunen aurreikuspenak (21-27), etab.
- S3. Nafarroako Espezializazio Adimenduna.
- Nafarroako Lurralde Estrategia.
- Klina. Nafarroako Klima Aldaketaren Ibilbide Orria.
- COM (2018) 321 azkena. «Un presupuesto moderno para una Unión que proteja, empodere y vele por la seguridad». 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparrua.
- COM (2017) 534 azkena. «Impulsar el crecimiento y la cohesión en las regiones fronterizas de la UE».
- PLEaren Idazkaritza Nagusia: POCTEFaren erreferentzia-proiektuen txostena 2007-2020.
- Espainiako Konstituzioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko abenduaren 29koa, 311. zk., 29313.-29424. or. Testuaren aipua: (Espainiako Konstituzioaren 130. artikulua)
- Komunikazioko Estatu Idazkaritza. Espainiaren eta Frantziaren arteko XXV. Goi-bilera. Adierazpen bateratua, 2017ko otsailaren 20koa.
- Eskualdeetako Lantaldea. Eskualdeetako Lantaldearen Ebazpena, maila anitzeko gobernantzaren Europako gutunari buruzkoa. 106. Osoko Bilkura, 2014ko apirilaren 2koa eta 3koa. RESOL-V-012. <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52014XR1728>
- COM(2018)374 azkena «Propuesta de Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo sobre disposiciones específicas para el objetivo de cooperación territorial europea (Interreg) financiado con ayuda del Fondo Europeo de Desarrollo Regional y los instrumentos de financiación exterior» <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52018PC0374>

PIRINIOETAKO ESTRATEGIA (2019)
Pirinioetako Lan Elkartea Partzuergoa
www.ctp.org



ESTRATEGIA PIRENAICA
STRATÉGIE PYRÉNÉENNE

